

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a / 718. zenbakia

OHIKO OSOKO BILKURA/ Alderdien Legea berbagai

Alderdien Legearekin apurtzeko egindako bi proposamenak baztertu ditu udalbatzarrak

UBANE MADERA

Herri Anitzak hiru zinegotziren dimisioa eskatu zuen udalbatzarraren. Helburua zen behin hori eginda Herri Anitzeko lau ordezkari izendatzea, zinegotzi izateko. Proposamenak ez zuen aldeko botorik jaso. EBk aurkeztutako mozio alternatiboa ere ez zuten onartu.

Lege elektoraleko 182.2 artikulua aplikatzea da Herri Anitzak eskatu zuena. Horren arabera, hiru pauso eman beharko lituzkete Udalean: hiru zinegotzik dimittitu (EAJ, PSE-EE eta EBko banak) eta EAJ, PSE-EE, EB eta Aralar-ko zerrendetan agertzen diren gaitzetzeko hautagaiek uko egin. Modu horretan, hirugarren pausoa, Herri Anitzeko lau zinegotzi izendatuko lituzkete, dimittitu dutenen lekua betetzeko.

Baina, esandako moduan, udalbatzarrak ez zuen onartu proposamena; bost abstentzio (Aralar, EA eta EAJko bat) izan ziren eta 15 boto kontra (PP, PSE-EE eta EB).

Emaitza horren aurrean, Herri Anitzeko ordezkari Utzu-ne Urrizalkik balorazio kaskarra eta ezkorra egin zuen: "Irtenbide hori aurrera eramateko ausardia eta borondate politikoa bakarrik behar dira. Argi eta garbi geratu da EAJk, Aralarrek, EAK, EBk eta PPK eta PSE-EEK ez daukatela inolako ausardia eta borondate politikorik, eta apartheid egoeraren bultzatzaile zuzenak bihurtzen dira. Azken bate-



Osoko bilkuran onartu zuten Markuleten eraikitako bi kale berriei Ikutio eta Telleria izenak ipintzea.

an, euren mantentzen dute egoera hori".

EB-REN ALTERNATIBA BAZTERTUTA

Bestalde, Ezker Batuak Herri Anitzaren mozioari babesa eman arren, mozio alternatiboa aurkeztu zuen. Hura ere ez zuten onartu zinegotziek. Kasu horretan, aldeko bost boto izan zituen

PPk kontsideratzen du Alderdien Legeak emaitza onak eman dituela eta ez dela zertan aldatu

(EBkoak eta EAJko bi), kontra zazpi (PP eta PSE-EE) eta gainerakoak abstenitu egin ziren.

EBren izenean, Ander Rodriguezek esan zigun 182.2 artikularen gainean zalantza juridikoa dituztela: "Alderdien Legea sustatu duten instantzia judicial eta politikoei abisatu dute udaletan bide hori hartuz gero, errekurri-

tu egingo dutela". Edozelan ere, mozioaren bitartez, Alderdien Legearen derogazioa eskatu zuten eta konpromisoa hartu zuen "herri plataformaren udal parte-hartze politikoa ahalbidetu nahian, bidegarritasun legalak izan ditza-keten aukera guztiak aztertzeke".

LEGEA BERTAN BEHERA UZTEA

Alkateak, berriz, adierazi zuen irtenbide bakarra Alderdien Legea bertan behera uztea dela: "Momentu nahiko itzaropentsua bizi dugu eta espero dugu hortik etortzea irtenbidea".

LEGEAREN EMAITZA ONAK

Oposizioko alderdiei dagokienez, berriz, biek bozkatu zuten aurkeztutako mozioen kontra. Hala, PPKo zinegotzi Itziar Lamarainek adierazi digu guztiz ados daudela Alderdien Legearekin: "Kontsideratzen dugu emaitza onak eman dituela eta ez dugu zertan pentsatu lege hori aldatuko denik". Gaineratu zigun Udalean ikusitakoaren arabera, alderdi nagusiek (PSE-EE eta EAJ) ez dutela legearen kontra egin: "Batzuk kalean derogazioaren alde egongo dira, baina Udalean, eta euren jarrera erakutsitako beste alditan, ez dute legearen derogazioaren edo legea aldatzearen alde bozkatu".

BI KALE BERRI

Batzarreko bestelako gaien artean, berriz, udalbatzarrak Markuleten eraikitako bi kale berriei Ikutio eta Telleria izenak ipintzea ere onartu zuen.

JUAN BERISTAIN

NEKAZAL TRESNAK

Oidor Berriozabalbeitia, 14
48230 Elorrio (Bizkaia)
Tel/Faxa: 94 623 18 03


Salmenta
eta
konponketa



HONDA
STIHL®
SAME



VIKING®





PROFESIONAL
liberalak

AHOLKULARITZA

ASEGI AHOLKULARIAK
Otalora Lizentziatua 4. Arrasate
Tel.: 943 71 25 49 Faxa: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

EMUN KOOP. E.
Uriburu 9, behea. Arrasate
Tel.: 943 71 18 47 Faxa: 943 79 34 26
emun@emun.com

**ETXE
ADMINISTRAZIOAK**

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
Otalora 16, solairuarte, esk. Arrasate
Tel.: 943 79 51 25 Faxa: 943 71 19 85
uribesalgoe@euskalnet.net

ABOKATUAK

**LIA ALTUNA
BEGOÑA LASAGABASTER**
Iturriotz 15, 1 A. Arrasate
Tel.: 943 79 98 86 Faxa: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

APAREJADOREAK

JUAN MARI OSINAGA
Zerkaosteta 17 behea
Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09
zutarri@infonegocio.com

BITART

**Larraitz Ugarte
Maidor Morras**
Nafarroa etorbidea 23
Arrasate
Tel.: 943 71 25 22 / 943 71 25 23
Poltsikokoa: 659 59 71 21

Uztailean hasiko dira Musakolan kirol esparruko lanak egiten

U.M.

Arrasateko kirol esparrua osorik birmoldatzeko proiektua badoa aurrera. Hain zuzen ere, asteleheneko osoko bilkuran birmoldaketari dagozkion lehen faseko lanak esleitu zituzten. 21 hilabeteko epea dute lanok egiteko. Lanen kostua 7.600 euro pasatxokoa da.

Hamazazpi eskaintza izan ditu Udalak Musakolako kirol esparruari dagozkion lanak egiteko. Guztien artean, CORSAN-CORVIAM SA eta ANTZIBAR SA enpresak aukeratu dituzte. Hala, bi enpresek UTE-a sortuko dute, lanek iraun bitartean.

Lehen esandako moduan, uztailean hasiko dira kirol esparruaren birmoldaketa egiten eta 21 hilabete izango dituzte lanak bukatzeko. Horretarako, 7.666.600 euroko aurrekontua dute. Hiru zatitan ordainduko ditu lanak Udalak: 2005 urtean: 1.540.814,26 euro; 2006an: 4.404.548,52 euro eta 2007an: 1.721.276,47 euro.

ZAZPI KIROL INSTALAZIO

Honako instalazioak izango ditu etorkizunean Musakolako kirol esparruak: errugbi zelaia, futbol zelaia, atletismoko pista, tenis eta padel pistak, skate parkea, auto telegidatuendako pista eta patinatze pista. Goiko irudian ikus daiteke non eraikiko dituzten aipatutako kirol instalazioak.



- 1-Futbol zelaia
- 2-Errugbi zelaia
- 3-Atletismo pista
- 4-Tenis eta padel pistak
- 5-Skate parkea
- 6-Auto telegidatuendako pista
- 7-Patinaje pista

Musakolako kirol esparru berriaren gaineko maketa.

ARRASATEKO UDALA

Hiru zatitan ordainduko ditu lanak Udalak, 2005ean hasi eta 2007an bukatu

HESIA, KANPOTIK

Arrasateko kirol esparru berriaren gainean emandako bestelako datuen arabera, jakinarazi dute esparrua bera kanpotik

Kanpotik hesia izango du kirol esparruak; sartzeko, ohiko sarrera erabili beharko da

hesitu egingo dutela, besteak beste, landareekin. Hala, barrura sartzeko, ohiko sarrera erabili beharko dute edozein instalazioren erabiltzaileek.

Terrorismoak eragindako biktimen aldeko oroigarria ipintzeko eskaera

U.M.

Arrasateko alderdi sozialistak proposamena egin du Udalean, terrorismoaren biktimen oroimenerako monumenturen bat-edo ipintzeko. Baina ez du adostasunik lortu gainerako alderdiekin. Jakinarazitakoaren arabera, oporrak baino lehen emango dute hartutako erabakiaren berri.

Joan den asteko bozeramaileen batzordean egin zuen proposamena Arrasateko PSE-EE alderdiko bozeramaile Paco Gartzia. Hala adierazi dio zinegotzi sozialistak Arrasate Irratiari: "Proposatu dugu terrorismoak eragindako biktimei omenaldi bat egitea Arrasaten, beste barik. Eta uste dugu omenaldi egokia litzatekeela eskulturaren bat edo antzerako zerbait ipintzea Herriko Plazaren edo parkeren bati". Edozelan ere, Paco Gartzia zinegotziak irratian gaineratu-

Bozeramaileen batzordean ez zuten adostasunik lortu alderdi politikoen artean

Udako oporrak baino lehen jakinaraziko dute zein den hartutako erabakia

takoaren arabera, beste edozein proposamen onartzeko gertu daude sozialistak; kontua da terrorismoak eragindako biktimen omentzea, ez besterik.

EZ DUTE ONARTU

Eta hala egin beharko dute. Izan ere, joan den eguneko bozeramaileen batzordean, gainerako alderdi politikoen ez zuten PSE-EEek egindako proposamena onartu: "Bozeramaileen batzordean eztabaidatu dugu gaia, baina zoritxarrez ez dugu adostasunik lortu. Horren ondorioz, mahai gainean geratu da gaia eta erabaki dugu talde politiko guztiek aztertuko dutela proposamena".

UDAKO OPORRAK BAINO LEHEN

Hain justu ere, bozeramaile sozialistak Arrasate Irratiari jakinarazi dio alderdi politikoen erabaki bat hartzeko epea zehaztu egin dutela, gaia bertan behera geratzeko arriskurik ez izateko: "Muga moduan ipini ditugu udako oporrak. Data hori baino lehen egin beharko genuke terrorismoak eragindako biktimen memoriaren aldeko zerbait Arrasaten".

LABUR

Fruta-zaintzaren eta baratze-zaintzaren gaineko ikastaroa antolatzekotan dabil Udala

Ikastaroa antolatzeko, baina, herritarren interesa zein den jakin nahi du Udalak. Hori dela eta, ikastaroan parte hartu nahi dutenek ekainaren 10a baino lehen eman beharko dute izena, Udaleko Ingu-rumen Sailean. Hasteko, ikastaroa azarotik martxora bitarteko zapa-tuetan egingo dute, 80 bat ordu. Mendikoik emango du.

Arrasateko udaletxean udako ordutegia erabiltzen hasi dira eguaztenaz geroztik

Ekainarekin batera estreinatzen dute udako ordutegia udaletxe-ko langileek. Eta irailaren bukaerara arte ibiliko dira haren ar-bera lanean. Hala, jendearendako arreta orduak goizez egingo dituz-te, hain zuzen ere, 09:00etatik 14:00ak arte, astelehenetik eguba-koitzera. Udaltzaingoan, berriz, betiko moduan segituko dute.

Elkartasuna erakusteko eta ikusteko bidea izango da bihar

U.M.

Zazpigarren aldiz egingo dute **Elkartasun Eguna. Gobernuz kanpoko zenbait erakundek (GKE) antolatu dute; batetik, behartsuekiko herritarren elkartasuna pizteko; bestetik, GKEen lanaren berri emateko.**

Mugarik Gabeko Ingeniariak, Harreman, Serso San Viator, NUBI eta Activos por un Mundo Solidario GKEek antolatu dute **Elkartasun Eguna**. Urtetan, isil-pean eta musu-truk egiten dabil-tzan lana herritarrei helaraztea da egun horren helburuetako bat, behartsuenekiko elkartasuna eta sentsibilizazioa piztu eragin eta bultzatzeko. Horrez gainera, bes-telako GKE batzuk ere etorriko dira Arrasatera, euren proiekt-

tuen berri ematera: Amnesty International, Komite Interna-zionalistak, Medicus Mundi...

Guztiak batera egingo dute **Elkartasun Eguna**, Seber Altu-ben, 11:00etatik 20:00etara. Haie-kin batera, elkartasuna abia-puntu moduan hartuta Ariz-mendiko eta Mesedeetako zenbait ikaslek ikasturtean egindako lanak aurkeztuko dituzte. Horrez gainera, umeendako jolasak ere izango dira; bidezko merkatari-tzako produktuak, Saharakoak eta, besteak beste, Indiako Ankur proiekturako dirua batzeko ton-bola. Tonbolarako produktuak Ibai Arte merkatari elkarteak emandakoak dira.

Hori guztiori girotzen, berriz, goizean Gasteizko Kalimba tal-deak joko du eta arratsaldean, Djambore perkusio taldeak.



ARTXIBOA

laz ere egin zituzten elkartasunarekin lotutako ekimenak zenbait ikaslek.

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 3**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- ZAPATUA, 4**
Azkoaga, Iturriotz 17 943 79 79 99
- DOMEKA, 5**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 6**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 7**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 8**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUENA, 9**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09
- EGUBAKOITZA, 10**
Zabala, Zarugalde 42 943 77 16 30

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIEIETXAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea, 943 03 53 00
Igalatorioa, 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak, 943 79 39 00
Emakumeak, 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea, 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak, 112
Gurutze Gorria, 943 76 55 76
DYA, 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua, 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan, 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan, egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan, 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea, 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak, 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate, 943 79 71 99
- SUHILTZAILAK**
Udal taldea, 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua, 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea, 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua), 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero), 943 12 01 62
Gasa, 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak, 943 79 12 22
PESA, 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXAK**
Iturbide egoitza, 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza, 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron, 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia	San Andres eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 11:00 (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza	Santa Teresa eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Zapatua 20:00 San Isidron (euskaraz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:00 (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 12:30 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia	Santa Marinako eliza
Zapatua 19:00 (elebiduna)	Jaiegun bezpera eta zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 11:30 (elebiduna)	Domeka 11:00 (elebiduna)

OHARRAK

EHNA-REN TRAMITAZIOA
Bihar, zapatua, EHNA tramitatuko dute Monterronen, 11:00etatik 13:00etara bitartean. Interesatuak 15 euro, errolda agiria eta hiru argazki eraman beharko dituzte.

BIR-ZIKLETA AZOKA
Bihar, zapatua, Bir-zikleta azoka egingo dute Jokin Zaitegi plazan, 11:00etatik 13:30era eta 17:00etatik 19:30era. Bihar ere eraman ahal izango da materiala azokara.

ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA
Gaur, egubakoitza, goi mailako ikasleek kontzertua egingo dute Eskolan, 18:00etan. Bihar, zapatua, Eskolako Big Band taldeak Vianako Foruen plazan emanaldia egingo du, 22:00etan.

NAGUSIEN ASTEA, ITURBIDEN
Astelehenetik egubakoitzera, Iturbide egoitzan Nagusien Astea egingo dute. Astelheanean, kafetertulia izango dute; martitzenean, Barruti magoaren emanaldia; eta eguenean, Nikolas Gardokiren dantzaldia. Guztiak 17:00etan egingo dituzte. Horrez gain, egubakoitzean bolo txapelketa egingo dute, 10:00etan, eta bingo txapelketa, 17:00etan.

AEDrenAGENDA

SAN JUANETAN, DRAGOI JANEAN, LAN EGITEKO DEIALDIA
AED elkarteak deialdia egin du herritarrek ekainaren 24an, Dragoi Janean, lan egin dezaten. Interesatuak jo dezatela AEDra.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Iñarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazubi, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

'Carmina Burana'-k arrakasta handia

Mondragon Abesbatzak eta Errusiako Orkestra Nazionalak bi egunetan bete zuten Amaia Udal Antzokia *Carmina Burana*-rekin. Emanaldi bakoitzaren aurretik, orkestrak Mozarten pieza batzuk eskaini zituen. 140 abeslarik esku hartu zuten, Jesus Mari Etxebarriaren zuzendaritzapean.




BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru



Bi kontestu hauetan bakarrik erabiltzen da: Lana senper eñ eta senper ikusi edo gorriak ikusi.
— Lana senper ein bakozu aurten titutlua etara nahi bozu.

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



'Alma Insumisa' nobelaren aurkezpena eta familia kontuak, asteburuko hitzorduan

Aste honetan ere, emankorrek izan dira 107.7ko autobusaren ibilbideak eta berauen laborpen bat jasoko duzue *Asteko Gainbegiratu*-n. Hasteko, Patxi Perez errenteriarrek Arrasaten aurkeztu duen *Alma Insumisa* liburua irakurriko dugu, egilea bera lagun dugula. Insumisia eta desobediencia gaitzat hartuta idatzitako eleberria da.

Maidar Morras abokatuak, bikoteen eskubide eta betebeharren gainean emandako azalpenak ere berreskuratuko ditu-

gu. Eta familia kontuekin jarraituz, Txema Larrañaga Beroa Gipuzkoako Famili Abegikorren Elkarteak kidearekin harrera familien gainean izandako solasaldia ere berreskuratuko dugu. *Asteko Gainbegiratu*-n, zapatuan eta domekan, 10:00etan.

DATORREN ASTEAN
Datorren astean ere, geltokiz-geltoki ibiliko gara 107.7an, 09:00etatik 11:00etara; bidaiarien artean, Larrantz Arando Sexologia Zerbitzuko teknikaria.

HAUGIROA!

MINIMOA Egubakoitza, 27	35 °C
MAXIMOA Eguaztena, 15	9 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	6,4 L

San Juan auzoan jasotako datuak



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 *Asteko gainbegiratu*: Patxi Perez, *Alma Insumisa* liburuen gainean; Maidar Morras abokatuak, bikoteen eskubide eta betebeharren gainean; Txema Larrañaga, Beroa elkarteak kidea; Arrasateko Bertso Eskolako ikasleak...
- DOMEKA**
10:00 *Asteko gainbegiratu*.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!** Albistegia. Eguraldiaren iragarpena (Joxe Lande). Elkarrizketak. Zozketak, e.a...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tarta.** Parte hartzeko: 943 71 17 31.
- 12:30 **Izarren ordua:** abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegi.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Autopistan obretan dabitzenien, iguel kobrau biherko leukie?



JOAQUIN MURUA
Langillie



JOKIN ZUBELDIA
Langillie



JULIAN FERNANDEZ
Erretiraue



CONSUELO LARREINA
Etxekoandrie



ALVARO MARTIN
Langillie



RAQUEL VELASCO
Langillie

Hala egitten daue, baiñe ez leukie bardin kobrau biherko. Zerbitzu batengaittik pagetan dou, eta momentu horretan ez daue zerbitzu hori ofreziduten. A-8xe, gainera, oso karue da.

Ez dot pentsetan. Azkarrau jueteko sartzen gare autopistara, eta obrak egoten badie, retenziñuek be bai. Tarifa espezial bat-edo euki biherko leukie, obretan dabitzenenerako.

Egixe esateko, neuk ez dauket kotxerik, eta oso gutxi biajetan dot. Hala eta be, ez leukie bardin kobrau biherko. Oin, zein da konponbidie? Obrak gabien egittie peligrasue izeten da.

Neuk pentsetan dot debaldekuie izen biherko leukela, edo merkiau ipiñi bestela. Egixe esateko, neuk ez dot autopistie askotan ibiltten, normalien Vittorixara jueten nazelako, autobusien.

Hori sekulakue da. Neu askotan jueten naz Donostia aldera, eta txarto pentsetan jat bardin kobretie. Baiñe beti pagetan dot, ez daukouleko presiñue egitteko indderrik.

Txarto ikusten dot tarifa iguela pagetie. Obrak dauzenien, autopistie ez da azkarraue izeten, eta karreterie be ez da egoera onien egoten. Baiñe sekule be ez dot protestarik egin.

USTEAKUSTE

Bedeinkatuta

Aita Santua berriro da albiste, Debagoienean bai behintzat. Izan ere, astean jakin dugu Ratzinger Aita Santuak Mondragon Kooperatiben Mugimenduko fundatzaileak omendu gura dituela. Itxuraz omenaldi hori Karol Wojtylaren garaian erabaki zuten, baina orain eman dute aditzera. ULGORen sortzaileetako lau laguni egingo diete omenaldia (oraingoan ere Ortubai fundatzailea ez dute aintzat hartu, eta Arizmendiarietaren seiñdeen hutsunea igarri dut). Horiek guztiek merezitakoa izango dute omenaldia, inork ezin dielako ukatu sortu zuten guztia. Eta horien artean Arizmendiarieta nabarmendu beharra dago, beste batzuek lan handia eginez garatu zituzten ideietako batzuk asmatu zituelako. Are gehiago, fundatzaileen maisua Arizmendiarieta apaiza izanda, horrek ere izan zezakeen zeresana oraingo omenaldian.

Erregearen bisita entzute-tsua eta haren inguruan sortu zuten parafernalia hura guztia ikusita, norbaitek esango du oraingo omenaldiarena munduko kristauei hozkailuak saltzeko estrategia izan daitekeela.

Hala balitz, ez dudala uste, hau behintzat beste modu baten antolatu dute, oso bitxia izan arren.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK BI ZULO HANDI ESTALITA Aspaldian errepideetako zuloekin bueltaka gabiltza tarte honetan. Errepideak asko erabiltzen ditugu, eta hori igartzen da errepideen egoeran eta baita ere jasotzen dugun kexa kopuruan. Astean jakin dugu San Viator goialdean dagoen errepideko zulo erraldoia estali dutela. Horrez gain, Arbolapeta eta Olarte kaletik errepidera irteteko bidegurutzean zegoena ere konpondu dute. Hala ere, txirindulari batek aditzera eman digu Gargartzako bidegurutzean beste zulo erraldoi bat dagoela.

ASTEKODATUA

45,5

KM, EUSKAL BIZIKLETAREN ETAPA BUKAERARAKO

Bihar, zapatua, helduko da Euskal Bizikleta Arrasatera. Goizean Murgiatik irten eta Abadiñon bukatuko da etapa hori. Arrasate etaparen erdibidean izango da, eta Arrasatetik Abadiñora 45,5 kilometro geldituko dira etapa bukatzeko.

HERRITARRENBERBAK/ Oihan Zubizarreta



Herria

Aurrera doan herria" garelako gogoratzen zuten iragarkiekin bonbardatzen gintuzten telebista, irrati, egunkari eta panfletoetan, iraganekoa dirudien gobernu autonomiko horietako batek. Zementuaren koloreko proiektuekin, espektakuluaren eta negozioaren kulturarekin, etxebizitzak oparitan ematen ziren zozketekin, euskararen folkloreakin, margotu gura zuten egunetik egunera kolore beltzagoa hartzen ari zen herriaren paisaia. Haien neurria egindako herrira egin gura gintuzten. Haienak bagina lez erabiltzen gintuzten, haien menetara lotutakoak bagina lez.

Eta badirudi, poliki-poliki aurrera doan herri honetan, neurriak aldatu arren, gauzak ez direla aldatzen. Herri honetako kolore beltzari argia eman gura zaion honetan, gauzak neurri bera izango dutelakoan. Nago, gobernu horretatik etorriko direnak

kolore bera izango dutela, gauzak aldatu arren, lehengo lepotik neurtuko direla denon dirutik ordaintzen diren proiektuak. Eta bitartean, herri honek aurrera egiteko pausoei begiratu beharrean, herri honen zati batek ematen dien hazkunde eta negoziotik,

"Aurrera doan herriak bat egitea hobe du, etorkizuna epaileek, politikariek eta bankariek erabaki ez dezaten"

zementu eta espektakulutik, aberasten jarraituko dute.

Panfletoetan irakurtzen jarraituko dugu egin dute naz, egin gura dutenaz... Egiten dutenaz esaten dutena asko irakurriko dugu, esaten dutena egiten dutela

ikustea kostako zaigun arren. Eta egingo dutela esaten dutena ongi iruditzen ez zaionak, ikusiko du nola gura dutena egiten jarraituko duten.

Aurrera doan herri batek behingoz bat egitea hobe du, etorkizuna omen epaileek, politikariek, zein bankariek erabaki ez dezaten. Gorroto gaituzten horiek erabaki ez dezaten. Kontura daitezen gurea "borrokan dabilen herria" dela.

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran
ERREDAKZIOA
Ubane Madera-
Xabier Urtzelai
MAKETAZIOA
Alex Azkarate
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martinez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza
ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Bereziar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia
LEGE-GORDAILUA
55-1124/88
ISSN
0214-4654
TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

Garagardoaren Jaian, inoiz baino karpa handiagoa jarriko dute

X.U.

Ekaineko lehenengo asteburua kirolez beteta dator, Deba-goieneko Triatloiak Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketarekin egin beharko du lehian, eta baita Zaldibarko finalerdiekin ere. Edozein hitzordu aukeraturata ere, Garagardoaren Jaian guztiondako egongo da lekua.

Izan ere, inoiz baino karpa handiagoa jarriko dute Herriko Plazan. Hala, orain arte jarri dutena galanta izan bada, asteburuan egongo den karpan guztiondako egongo da lekua. Alde horretatik, antolatzaileek lan handiagoa egin beharko dute, leku gehiago jar-tzeak esan gura duelako jateko eta edateko gehiago eman beharko dituztela; Alemaniako primerako garagardoa, saltxitxak, oilaskoa, txerri-ukondoa... Gaur bertan irekiko dute karpa (19:00etan), eta bertan afaldu ahal izango da. Zapatuan, berriz, 12:00etan irekiko dute karpa. 14:00etan egingo dute herri bazkaria, eta handik Atxabalpera joango dira guztiak, errugbi txapelketa ikustera.

11 TALDE, ATXABALPEN

Durango, Zarautz, Eibar, Ordizia, Elorrio, Gaztedi, Atletico San Sebastian, Bera-Bera, Valladolideko VRAC, Bordeleko BEC eta Arrasate izango dira bihar, 15:00etan hasita, Nazioarteko Zazpinako Txapelketan.

Joan den urtean txapelketa izan zen Euskadiko Selekzioak ez du aurten esku hartuko, eta Bordelekoak etorriko dira garaipen



GOIENKARIA

Joan den urtean zortzigarren izan zen Arrasate; hobetu beharreko marka da hori.

bila. Frantziakoek joan den urtean kale egin zuten, baina eurak izan ziren orain dela bi urteko irabazleak.

Arrasateko taldeari dagokionez, ikusi egin behar urteko sasoi honetan jokalaria zelau dauden, aspaldi amaitu zuten-eta Liga Txapelketa. Horrekin batera, joan den urtean jokalaria gutxiarekin jokaturata ere, gauza izan ziren Zarautz, Eibar eta Gaztedi talde-

ak atzean uzteko. Dena dela, Arrasatekoak zortzigarren izan ziren, eta marka hori hobetzeko egin beharko dute lan.

Txapelketa jokatu eta gero, Herriko Plazan jarraituko du jaiak, hantxe egingo dute-eta sari banaketa (20:30). 22:00etan musika emanaldia izango da, eta 00:00etan egingo dute bazkideen arteko zozketa. Saria: Lasa jate-txean bi lagunendako afaria.

Finalean nortzuk egongo diren erabakitzekeo partiduak, bihar

X.U.

Gertu dago Zaldibarko Txapelketako finala, asteburuan jokatu dituzte-eta finalerdia. Urteko lau talde onenak izango dira nor baino nor gehiago bihar, 15:45ean hasita.

Lasagabaster, Saukelu Scream, Betrayer eta Dribling, horiek aurtengo Zaldibarko Txapelketako talde onenak. Eta onena izateak ez du gura esan ondoen jokatu dutenak direnik bakarrik, finaleraino iristeko hori baino askoz gehiago behar da-eta. Bidean geratu dira jokalaria onak dituzten taldeak, eta baita talde moduan ondo

jokatu dutenak ere. Horri, baina, seriotasuna eta txapelketarekiko konpromisoa gehitu behar zaizkio, eta horretan batzuek kale egin dute.

ZEIN DA FAVORITOA?


Lasagabaster eta Saukelu Scream taldeek 15:45ean jokatu dute, eta ondoren etorriko da bigarren norgehiagoka. 17:00etatik aurrera lehiatuko dira-eta Betrayer eta Dribling.

Kopako finalera iritsita erakutsi dute Saukelukoek gogor dabiltzala, eta garaipen gogoz egongo dira. Baina gainontzeko hiru taldeek ere badakite zer den Zaldibarko azken txanpara iristea.



ZALDIBARKO ANTOLATZALEAK

Kopako finala galduta, Saukelukoek ez dute urtea esku hutsik amaitu gura.



120 judoka gazte baino gehiago bihar, Arrasateko txapelketan

Arrasateko Judo Taldeak txapelketa antolatu du biharko. 10:00etan hasita (Musakolan), Madrilgo, Kalagorriko, Iruñeko, Donostiako, Irungo, Tolosako, Eibarko eta beste hainbat herritako judokak izango dira lehian. Guztira, 120 judoka baino gehiago elkartuko direla esan digu Arrasateko taldeko entrenatzaile Julio Gallegok. Alebin, infantil eta junior mailetan lehiatuko dira. /X.U.

LABUR

Arrasateko hiru atleta Valladoliden izango dira asteburuan, Espainiako Txapelketan

Arrasate Atletismo taldeko ordezkariak izango dira Lander Errasti pertika jauzian, Jon Ander Amado 400 metroko lasterketan eta Markel Blanco 800 metroko lasterketan. Horrekin batera, Jonathan Perez Andorratik ekarritako zapore gazia gozotzen ahaleginduko da Anoetan egingo duten Euskadiko Txapelketan.

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

ERRUGBIA

Zazpinako Txapelketa

Zapatuan, 15:00etan. Atxabalpen.

Sari banaketa, 20:30ean. Herriko Plazan.

JUDO

Arrasateko txapelketa

Zapatuan, 10:00. Musakolan.

DEBAGOIENKO TRIATLOIA

Zapatuan, 16:00. Urkulun

ZALDIBARKO TXAPELKETA

Lasagabaster - Saukelu Scream

Finalerdia. Zapatuan, 15:45. Zaldibarren.

Betrayer - Dribling

Finalerdia. Zapatuan, 17:00. Zaldibarren.

EMAITZAK

FUTBOLA

Preferentea: Mutriku-Mondra.....2-1

ESKUBALOA

Igoera fasea: Bidasoa Irun - AGR.....28-24

Beldurrezko antzezlan baten estreinaldia egingo dute Amaian

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, beldurrezko *Escalofríos* antzezlan estreinaldia egingo dute Amaia Udal Antzokian, 19:30ean. Bizkaiko Ada eta Lula antzerki taldeen koprodukzioa da.

Ez da ohikoa beldurrezko antzezlanak ikustea, are gutxiago Euskal Herrian eginak badaude. Hori-

xe bera pentsatu zuten Ada eta Lula antzerki taldeetako lagunek. Horregatik, orain dela urtebete inguru, bi talde horietako lagunek indarrak batu zituzten. Patxi Bilbao bermeotarrak idatzi zuen gidoia eta zuzendari lana bere gain hartu du.

Lula Galdakao eta Barakaldoko lagunek osatutako taldea da. Orain dela hiru urte, produkzio-etxe baten elkar ezagutu zuten,

eta talde propioa sortzea erabaki zuten. Bi lan antzeztu dituzte orain arte: *La cebra enamorada* eta *Naranjas de la china*. Biak hala biak komediak dira.

Ada Bermeoko taldea da. 10 bat urte daramatzate ikuskizunak egiten, eta dagoeneko honako lanak egin dituzte: *Noche de terror*, *Oh La La!* eta kale-ikuskizun batzuk.


GERTUKO ISTORIOAK KONTATU

Escalofríos ikuskizuna hiru istorio osatzen dute. Hiru istorio horiek ez dute inolako zerikusirik elkarren artean, baina kontatzaile batek lotu egingo ditu hirurak. Istorio bakoitzean bi aktorek esku hartuko dute, eta efektu bereziak erabiliko dituzte.

“Ohiko beldurrezko istorioak dira, eta ikusleei gertukoak egingo zaizkie”, azaldu zigun Itsaso Elias aktoreak. Hain zuzen ere, holako kontakizunak dira: “psikiatra baten eta telekinesia duen gaixo baten arteko harremana; izeba aberatsa duten bi ahizpen artekoa; eta etxean irratia entzuten bakarrik dagoen emakume baten gainekoa”.

Istorio bakoitzak ordu erdi inguru iraungo du, eta horien artean kontakzaile sabeliztunak ikusleei azalpenak emango dizkie. “Ikuskizunak estetika gotikoa eta beltza dauka, 50eko hamarkadako beldurrezko filmena-edo”, azpimarratu zuen Itsaso Elias aktoreak.

Arrasaten aurkeztu ostean, ikuskizuna Espainiako Estatu-ko hainbat hiritan antzezteko asmoa dute.



Beldurrezko hiru istorioak osatzen dute ikuskizuna.


Adimen urrikoei omenaldia egingo die SUDC elkarteak, bihar, Uarkapen

I.B.

Bihar, zapatua, SUDC elkarteak omenaldia egingo die adimen urrikoei. Uarkapen batuko dira lagun eta senartekoekin, eta hainbat ekintza egingo dituzte: bazkaria, jokoak, opari banaketa...

SUDC elkarteak urtero hainbat ekintza garrantzitsu egiten ditu. Herriko jaietan esku-hartze garrantzitsua izateaz gain, hortik kanpo ere herritar talde batzuei zuzendutako ekitaldiak antolatzen dituzte. Horra hor, adibidez, joan den asteburuko erretiratuen bazkaria.

HERRITAR ASKORENDAKO, EGUN BEREZIA
Biharko, zapatua, SUDC elkarteak urteroko hitzordua egin du. 13:00etan, omenaldia jasoko duten herritarrek Uarkape pilotalekuan batuko dira. 14:30ean,



SUDC elkarteak gonbidapena egin die herritarrei jokoetan esku har dezaten.

bazkaria egingo dute Alkartu elkarteak.

Horren ostean, 16:00etatik 19:00etara bitartean, omenaldia

jasoko dutenek eta gura duten herritarrek jokoak izango dituzte pilotalekuan. Azkenik, opariak banatuko dituzte.



San Juanetako irudia, Iñigo Urrutiarena

Iñigo Urrutia 28 urteko eskoriatzarra izan da aurtengo San Juanetako irudi lehiaketako irabazlea. Epaimahaiak 20 lanen artean aukeratu du. Urrutiak diseinu lanak egiten ditu, eta Eskoriatzan hainbat sari jaso izan ditu. “Arrasateko jaietako ohiko irudiak –dragoia eta sua– erabili ditut, baina beste ikuspegi bat eman diet, plano eta gardentasunekin jokatuta”, azaldu zigun. Saria oportetan joateko erabiliko du. //B.



Argazkian, Arregi aretoko Iñigo Arregi eta Luis Laskurain margolaria.

Natura hila gaur egungo artera egokitu du Laskurainek

I.B.

Luis Laskurain bergararrak margoketa ipini du Arregi galerian (Maala kalea). Azkeneko 7 urteotan Laskurain Arrasate Margo Taldean eskolak ematen dabil. **Natura hilak ditu erakusgai ekainaren 20ra arte.**

Luis Laskurain Bergarako margolariak urte asko daramatza margotzen. 60ko hamarkada ezkerro dabil zeregin horretan, eta oso gustuko du.

Honako hau Arrasaten erakusketa bat jartzen duen lehenengo aldia da. 14 lan jarri ditu erakusgai. Guztietan natura hilak (bodegoiak) margotu ditu, baina kontzeptu hori, natura hilena, gaur egungo artera egokitu du.

Laskurainek hiru helburu nagusi finkatu ditu: “Gero eta gutxiago erabiltzen den gaia –natura hilak– jorratzea; ahalik eta elementu gutxienez erabiltzea, emaitza konplexuagoa izateko; eta koloreen bitartez, argia jasotzea, hain zuzen ere”. Haren esanetan, margolanen konposizioa akademikoa eta oso geometrikoa da, eta itzalekin asko jokatzen du.

Laskurainek 7 bat urte daramatza Arrasateko Margo Taldean eskolak ematen. “Artea ezin da erakutsi, berezkoa da, baina teknika irakats daiteke. Horretan saiatzen naiz”.

Aspaldian Laskurain erretratuak egiten hasi da. “Horretan buru-belarri jartzeko asmoa daukat. Poseekin eta bestelakoekin jokatuko dut”.

BOTEPRONTUEN

Oihana Gartzia

BANAK IMPORTA

XABIER URTZELAI

Hillebete egin daue Oihanak eta Leirek Zerkaosteta kalien dauen Banak Importa denda barrixen lanien, Oihanandako barrixe da lan hori, eta Leire da esperientziadune. Muebliek edo osagarriek topetan bazabitzte, egin bisitatxo bat, dendan bertan erakusketa ederra daukie-eta.

Izen xelebrie dauketzue.

Egixe esateko, bai, eta ez galdetu zer gure dauen esan. Hau frankizia bat da, eta ez dakit Banak nundik datorren. Salamandrie da geure logue, eta muebliek Indonesiakuek dienez... Iguel holako zeozer izengo da. Importa, barriz, inportaziñotik dator.

Esango neuke ez dauketzuela betiko muebliek.

Berezixek die, kolonialak, eta rustikuek. Eta horren barruen, bertsio modernuauek be badaukou: forma borobillek, gehixau landutakuek... Dana dau teka egurrekin egindde, eskuz, eta mueble trinkuek die. Indonesian egitten daue muebliek, handik Valentziara bielketan daue, azkeneko konponketak egin, eta dendara.

Valentzian dauketzue zentrala, eta Euskal Herrixen, zentral denda?

Bost denda inguru, esango neuke. Donostian eta Gasteizen, Bilbon oin zabaldu biher daue... Laudion beste bat... Horrekin batera esan, Banak Importako dendez gain beste denda batzuetan be saltzen dauela geure muebliek.

Kanpoko jentie etorten da zeun dendara?

Bai, eta kuriosue da. Jentiek ikusten dau Banak-ek nun daukon denda barrixe, eta ikustera etorten die. Inguruko herrixetako jentien izeten da, normalien.

Webgunien egon naz begire, eta bertan jarten dau ingurumena zainketako ahalegiñe egitten dozuela. Zelan?

Bai. Egurre kontrolauteko oihaneztatzietatik lortzen dou, hondakiñendako geure depuradorie daukou, reziklau egitten



"500 metro kuadroko erakusketie daukou dendan, eta merezi dau ikustera etortie"

dou... Hori danoi dator webgunien.

Muebliekin batera, osagarriek be saltzen dozue.

Eta mordue daukou, gaiñera. Lanparak, kojiñek... Dekoraziñorako balixo dauen dana. 500 metro kuadroko erakusketie daukou dendan, eta bertan ikusi leike dana. Merezi dau erakusketie ikustie, txukun geratu da.

Zerek emuten dutzu begixetan min?

Lan kontuetan... hillebete daroieu, hortan...

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondraguei?

Kalien aparkaleku gehixau, danak baterixan.

"Indonesiatik ekarrittako muebliek die, rustikuek, teka egurrekin eginddakuek"

Eta ze dauko Mondraguek ona?

Dauen ambientie.

Ze falta jatzu zeuri?

Dirue.

Eta ze dauketzu sobran?

Sobran... Ezer be ez.

Pelikula bat / Liburu bat / Musika talde bat.

Pelikula bat ikusten dotenien, lo geraketan naz / Ez dauket leiduteko denporarik / Danetik entzuten dot.

Kapritxo bat.

Esaten hasi ezkeru...

Nora juengo zitzake gustora?

Oin, Karibe aldera juengo nitza-ke gustora, hamar edo hamabost egunerako.

NIREBIDAIAHURA/ Amaia Etxebeste

Mexikora / 2003ko uztailean

Joan den asteko artikulua amaitu genuen esaten. Amaiak Marcos komandanteordea ezagutu zuela: "Komandanteordea eta beste hainbat lagun azaldu aurretik, aurreko egunetan, tentsio nabari zen. Gau baten hainbat kaputxadun ikusi zituzten zaldi gainean, eta egun gutxira azaldu ziren gu geunden lekuan. Itxuraz, komandanteordeak galdetu zuen ea inguruan euskaldunik ba ote zegoen, eta gure bila etorri ziren. Ni sukaldetan nengoen, frijoleekin, eta irteteko eskatu zidaten. Harrituta geratu nintzen kaputxadunak ikusita. Hogei minutu inguru izan ginen eurekin berbetan, eta besteak beste, barkamena eskatu zigun Marcos komandanteordeak. Gogoan izango duzue zelan orain dela urte gutxi zapatisten komandanteordeak hainbat adierazpen egin zituen hemengo arazoaren eta borroka armatuaren gainean. Eta, sekulako hankasartzea egin zuela-eta, ordutik hona han inguruan dabilzan euskaldunekin egoteko konpromisoa hartu zuela esan zigun, banan-banan barkamena eskatzeko".

Anekdotak hori alde batera utzita, hangoekin izandako harremanen berri eman digu Amaiak: "Emakumeekin izandako tratua aberasgarria izan zen. Jakingura handia dutela ikusi nuen. Eta gizonezkoen eta emakumezkoen artean alde handia dagoela. Komunitatean bertan, putzu moduko batean garbitzen ginen. Uretan banangoen, arrokekin noski, gizonezko bakar bat ere ez zen uretara sartzen, kanpoan itxuiten zuten. Horrelako kontuetan igartzen da zelako alde dagoen. Emakumea nintzelako izan nuen hango emakumeekin horrenbesteko tratua. Izan ere, gizonezkoa izan banintz, hori ez zatekeen hala izango, oso lotsatiak dira. Eta gainera, sukaldetan lagundu izan banie, barre egingo zuketan".



"Euskaldunik ba ote zegoen galdetu, eta barkatzeko eskatu zigun"

"Hango emakumeek jakingura handia daukate"

XABIER URTZELAI



Gizateriaren aldeko erresistentziaren eta asaldatzearen jaia.

BASATI TABERNA
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
943 711767

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

LEIHOAK, ATEAK, ZORUAK, ARMAIRUAK
AGR
García Ripa
ZAHARBERRITZEAK
PVC, ALUMINIOA, EGURRA
Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki 3 behe (Musakola)
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC
Leihoak eta itxierak
Egur aroztegia
Leihoak
Ateak
Armairu enpotratuak
Armairu-fronteak
Mota guztietako zoruak
Lixatua eta bernizatua
Osagarriak
Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahaiaik eta aulkiaik



KOADRILA GALANTA MONTERRONEN, PRESO DAGOEN 'PEKER'-I ZORIONAK EMATEKO

Maiatzaren 21a izan zen Gaizka Olabarrieta *Peker*-en urtebetetze eguna, baina Arrasatekoak ezin izan zuten egun berezi hori hurbileko lagun eta famillakoekin ospatu, orain dela gutxi espetxeratu egin dute eta, Gorka Aztiriarekin batera, Gaizka Madrilgo Soto del Real kartzelan dago, eta koadrilakoek urtebetetze

eguna berarekin ospatu ez zutenek, argazkian duzuen ekimena egin gura izan zuten. Monterronen elkartu ziren lagunak, Gaizkari elkartasuna adierazi eta animuak emateko. Horrekin batera, ez zuten *Peker*-ekin batera atxilotu zuten Gorka Aztiria ahaztu gura izan, eta besarkada handi bat bidali gura izan diote hari ere.



ARIZMENDIKOAK IKASPILOTAKO FINALEAN, ZARAUTZEN

Goiko erretratua da Ikaspilotak Gipuzkoa mailan egiten duen euskal soin jardueren txapelketakoa, finalekoa. Finala egin aurretik, baina, kanporaketa txapelketak egin zituzten Gipuzkoa osoan, eta ibarrean neska-mutiko askok hartu zuten esku maiatzaren 24an egindako txapelketan. Eta Almen guneko DBHko 1. mailako taldeak eskuratu zuten finalerako txartela, Zarautzen jokatu zuena. Maiatzaren 26an egin zuten final hori, Donostiako, Oreretako, Zumaiaiko, Azkoitiko eta beste hainbat herritako ordezkarien kontra. Korrika lasterketa, giza proba, zaku eramatea, lokotxak eta beste hainbat proba egin behar izan zituzten, eta ibarreko ordezkariek hirugarren sailkatuta brontzeko dominarekin itzuli ziren etxera.



BESAIDKOEK EDERTO AMAITU ZUTEN MENDI ASTEA, BIZIKLETA IRTEERA JENDETSUAREKIN

Esan gabe doa txirrindularitzak gero eta jarraitzaile gehiago dituela, bai errepidean ibiltzen direnak eta baita mendira joaten direnak ere. Baina Besaidekoek ez zuten esango zapatuan egin zuten bizikleta irteerak horren arrakastatsua izan behar zuenik. Hogeita hamar lagun inguru espero zituzten, eta erreferentzia hori erabili zuten Gatzagako gainean jarri zuten

hamaiketako egiteko orduan. Zapatuan, baina, 71 lagun elkartu ziren Musakolan, eta genero gehiago erosi behar izan zuten, lehenbailehen, gainera. Bizikletan ibiltzeko eguraldi paregabea egin zuten, aurreko egunetako bero barik. Arrasatekoak, ibarrekoak, Durangotik, Bilbotik eta beste hainbat lekutatik etorritako lagunak pozik geratu ziren, Besaidekoei esker igaro zuten goizagatik.

ELKARBIZITZA/ Adin talde batek besteari mesede egiteko programa

Erretiratuak eta ikasleak batera bizi izateko programa abian jarri dute

IKER BARANDIARAN

MUK eta Udalak ikasleak erretiratuekin bizi izateko programa abian jarri dute. Ikasleek ez dute alokairurik ordaindu behar izango. Erretiratuek, berriz, laguntasuna jasotzeaz gain, dirulaguntzak jasoko dituzte etxean ikasle bat bizi izaten egoteagatik.

2000n, Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mondragon Unibertsitateak hitzarmena sinatu zuten elkarrekin bizi gura zuten erretiratuei eta ikasleei laguntza emateko. Zoritxarrez ez zuen inork interesik agertu, eta ez zuten programa estreinatu.

Gerora, Aldundiak programa hori abian jartzeko eta finantzatzeko ardura Udalari eman zion, ekimena adinezko pertsona baliatuei zuzenduta dagoelako.

Aurten, Udalak eta Mondragon Unibertsitateak berriro proba egitea erabaki dute, Unibertsitateak eta Udaleko Gizarte zerbitzuak hala eskatuta.

BI ADIN TALDEEN MESEDERAKO

Interesa duten gazteek honako baldintzak bete beharko dituzte: 18 urte beteta edukitzea; dagokion ikasturterako matrikulatuta egotea erdi edo goi mailako ikasketetan; eta gaixotasun kutsagarriarik ez edukitzea, ez eta elkarbizitza normalari kontra egin diezaiokkeen arazorik ere.



Programa horren helburua da ikasleek eta erretiratuek elkarri laguntzea.

GORKA MORRAS

Erretiratuek, berriz, honako baldintzak bete beharko dituzte: 60 urte beteta edukitzea; bakarrik edo adineko beste pertsona batekin bizi izatea; gaixotasun kutsa-

garririk ez edukitzea, ez eta elkarbizitza normalari kontra egin diezaiokkeen arazorik ere; bere kabuz moldatzeko gauza izatea; ohiko etxebizitza bat izatea lortu gura

den helbururako egokituta, ikaslearendako banakako logela bat izango duena eta sukaldea eta etxeke gainerako dependentziak behar bezala egokituta dituen,

Ikasleek ez dute ezer ordainduko, eta erretiratuek dirulaguntzak jasoko dituzte

Udalak eta Muk proba egin gura dute; izenematea zabalik dago MUn eta Udaletxean

ikasleak horiek guztiak erabil ditzan. Horrez gain, erretiratuak eta ikasleak ezin izango dute ahal-detasun loturarik izan, ez odolekorik ez ezkontzatorik, 4. eta 2. mailetaraino, hurrenez hurren.

Ikasleek ez dute alokairurik ordaindu behar izango, baina horren truke erretiratuari laguntasuna eskainiko diote eta gutxienez eguneko ordu batez lagundu beharko dute: medikuarengana joaten, janariak eta botikak erosten, eta abar. Bestalde, Udalak erretiratu bakoitzari hilero 90 eta 240 euro bitarteko laguntza emango dio ikaslea etxean izateagatik.

Euskal Herrian Zuzenean jaialdian laguntzera joateko aukera

I.B.

AED Gazteak taldea EHZ jaialdian laguntzera joango da. Horretarako, lantaldeak osatu gura ditu astelehenerako. Jaialdia uztailaren 1ean, 2an eta 3an egingo dute.

Aurtengoa Euskal Herria Zuzenean jaialdiaren X. edizioa da. Orain dela zazpi bat urte, Txatxilipurdik begirale eta gazte talde bat eraman zuen lan egitera. Oso harrera ona izan zuen ekimenak: oso esperientzia ona bizi izan zuten, eta Iparraldeko euskararen

Urteroko ohitura bilakatu da herriko hainbat gaztek jaialdian esku hartzea

alde egin zuten. Txatxilipurdik urte batez errepikatu zuen ekimena, baina horren ostean AED Gazteek hartu zuten lekukoa.

Astelehena, ekainaren 6a, da izena emateko azkeneko eguna. Baldintza izango da 15 urte edo gehiago izatea, eta 25 euro ordaindu beharko dituzte. Horren barne, autobusa, jatorduak eta kontzertuetarako sarrerak izango dituzte. Urtero, Euskal Herriko, Frantziako eta Espainiako Estatuko puntako taldeek esku hartzen dute Zuberoko jaialdi erraldoi horretan.



Bakarlariak eta punka, 3.60 aretoan

Asteburuan kontzertuak egingo dituzte 3.60 aretoan. Gaur, egubakoitza, Alex El Hierro, Jabi Arteaga eta Jim TNT bakarlariak emanaldi akustikoak egingo dituzte, 23:00etan. Sarrera doan izango da. Bihar, zapatua, berriz, doinu gogoragoak eskainiko dituzte. Gasteizko Obligaciones, Eskorriatzako Lukas Prest eta Lazkaoko Brigada Criminal izango dira taula gainean. Lazkaotarrek diskoa aurkeztuko dute. //B.



Ibarreko lagun dezente joaten dira urtero jaialdi horretan laguntzera.

AED

KUTXA

“Etxebizitza erosi edo saldu gura duenak aholkularitza zerbitzua eta laguntza ditu”

Etxebizitza erosi edo saldu behar duten guztien interesekoa izango den aholkularitza zerbitzu paregabea eskaintzen du Kutxak. Salerosketari hasieratik bukareraino jarraituko dion zerbitzua da, abantaila guztien berri emanaz, eta norberari egokitutako aholkurik onenak eskainiz. Itziar Irazusta da Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

Zer da Kutxako Etxebizitza Zerbitzua?

Etxebizitza erosi edo saltzeko asmoa duten pertsona guztiei zuzendutako zerbitzua da. Salerosketa prozesu osoan laguntzeko asmoz sortu zen.

Zergatik eskaintzen duzue?

Etxebizitza baten salerosketa pertsona edo famili bizitzako finantza operazio garrantzitsuena izaten da. Gutxitan errepikatzen den operazioa da, eta kontzeptu berri eta ezezagun asko sortzen dira. Arrazoi hau dela eta, Kutxan oso konprometuta sentitzen gara egoera horretan dauden pertsonen prozesu osoan kalitateko aholkularitza zerbitzu bat eskaintzeko.

Zer nolako aholkularitza eskaintzen duzue zerbitzu honen bitartez?

Kutxan, bi helburu ditugu: Batetik, bezeroaren neurria finantziario proiektu bat eskaintzea. Hala, finantza entitateak, historikoki, finantziario bi aukera eskaini ditu: interes finko edo aldagarriko maileguak. Gaur egun berriz, Kutxan finantziario mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua.

Eta bestetik, bezeroak salerosketatik daukan abantailen berri izan dezala:

Salerosketa bakoitza erabat desberdina da, eta pertsonak lortu ditzaketen abantailak ere bai. Adibidez, babes ofizialeko, bigarren eskuko edo lehen eskuko erosketetan zergak desberdinak dira. Beraz, norberari egokitutako azterketa egiten diogu bezeroari, bere egoera ezagutu eta zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko asmoz. Adibide moduan, aholkularitza fiskalean arreta handia jartzen dugu.

Zer ulertu behar dugu aholkularitza fiskala esanda?

Salerosketarekin batera, etxebizitzaren eta titularraren ezaugarrien arabera, ordaindu beharreko zergak desberdinak dira. Kutxan horren gaineko informazio guztia ematen diegu, bezeroek eskura dituzten abantaila guztien berri izan dezaten.



Itziar Irazusta, Kutxako Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria.

“Kutxan finantziario mota asko dauzkagu bezeroak berak aukera dezan gehien egokitzen zaion produktua”

“Kutxan, banakako estudioa egitea oinarritzkoa ikusten dugu, abantaila guztien berri emateko”

Horretaz gain, Haziendak etxebizitzaren erosketatik deduzitzeko aukera ematen digu. 30.000 € baino gehiago buelta diezaguke urtero egiten dugun errenta aitoparen bitartez. Abantaila hauek aprobetxatzen has gaitzeko etxea erosi baino 6 urte lehenagotik. Beraz, hurrengo urteetan etxea erosteko asmoa dutenek aukera izan dezakete deduzitzen hasteko.

Ondorioz, Kutxatik banakako estudioa egitea oinarritzkoa ikusten dugu, abantaila hauen guztien berri emateko eta bezeroak operazio guztian gure laguntza eta babesa eduki dezan.

Jendeak finantziario behar izaten du. Zer nolako mailegu motak eskaintzen dituzue?

Gaur egun, produktua pertsonaren arabera diseinatu dugu. Aukera ugari ditugu eta bezeroa da norberari egokien datorkion produktua aukeratzeko duena. Interes mugikorrek interes finkorako maileguak eskaintzen ditugu. Lehenengo kasuan, maileguaren kuota aldatu egingo da merkatuaren interesen eboluzioaren arabera. Bigarren kasuan, berriz, hasieratik eta behin betiko, interesak finkoak izaten dira, eta merkatuko interesen gorabeherak ez dute eraginik izango bezeroak ordaintzen duen kuotan. Honetaz gain, mailegu mistoak ere eskaintzen ditugu, interes finko eta mugikorren konbinaketa eginez. Era honetan, interesen igoeren aurrean, bezeroa babestuta geratzen da.

Interesatuta dauden pertsonak nola jar daitezke harremanetan zuekin?

Zerbitzua interesatu guztien eskura jartzen dugu gure bulegoen bitartez; gaur egun, 120 dira Gipuzkoan.

Herritarren zerbitzura

Badira urte batzuk Etxebizitza Zerbitzua antolatu zuela Kutxak. Itziar Irazusta, bestalde, 1999az geroztik dabil etxebizitzaren gaineko lanetan, eta orain Etxebizitza Zerbitzuko zuzendaria da. “Jendeak etxea erosi edo saltzera zihoanean kontzeptu eta pauso berri eta ezezagun askoren aurrean aurkitzen zela ikusi genuen. Egoera horri irtenbidea topatu guran antolatu genuen gure zerbitzua”, dio Itziarrek. Eta oso harrera ona egin zioten herritarrek zerbitzuari: “Gestioak egiteko orduan alboan izaten

gaituzte, eskutik helduta joaten gara egin beharreko pauso guztietan, eta asko baloratzen dute hori”.

Erosteko orduan bakarrik ez, etxebizitzarekin zerikusia duen edozein gestio egiten laguntzen du Kutxako Etxebizitza Zerbitzua: Salmentako momentuan, etxea erosteko aurrezten pentsatzen hasi denean eta beste hainbat kasutan, Gipuzkoan dituen edozein bulegotara joan eta eskatu besterik ez dute interesatuek: laguntzeko gertu aurkituko dituzte.



etxe berria?

HIPOTEKA **ziurra**

☀ interes-tasen igoerek ez dizute erasango zeuk aukeratutako epealdian (gehienez 15 urtekoan).

Eta noizbait ordainketak egokitu beharra gertatuko balaitzaizu, honako aukera hauek ere badituzu:

- ☀ ordaindu beharreko kuotaren zenbatekoa murriztekoa.
- ☀ amortizazioaren ordainketa denboraldi batez eteteko.



ETXEBIZITZA-ZERBITZUA
Etengabeko laguntza. Hasi eta buka.

kutxa
zure diruaren balio erantsia

www.kutxa.net

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Non dago argazkian ikusten duzuen iturri hori?
Arrastoa: kirolari askori freskatzeko laguntzen die, batez ere asteburuetan.

Super BM

Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Pay Pay atuna oliba-olioan
111g.

1,29 € 215 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ISABEL GÓMEZrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Isabel!
Galderen erantzun zuzena:
1942an.

ARRASATEKOHISTORIA

Herriko udaletxearen gaineko zenbait bitxikeria

'MONDRAGÓN, TRAYECTORIA... / URANGA

Udaletxeak lau mende ditu; baita zenbait bitxikeria ere. Horieta-ko batzuk azaldu zituen Jose Maria Uranga historiagileak *Mondragón, trayectoria y anecdotario* lanean:

Kontzeju zaharra Iturriotz kalean izan zen 1757ra arte.

Plaza berria handitu eta txukuntzeko eta kontzeju berria eraikitzeko, jaustear zeuden bi etxe huts erosi zituen udalerrriak kobrezko 8.800 txanponen truke, Ponciana de Ollaurizi.

Juan Javier Araotz alkate zela, 1755eko uztailaren 15ean, Martin Carrera arkitektoak proiektua aurkeztu zuen. Udalbatzarrak aho batez onartu zuen. Hareharriz egitea zen hasierako asmoa, baina Galarrako kareharriz egin zuten.

HARRIA, AGURAINDIK ETA BERGARATIK
Armarria eta moldurak Aguraingo harriarekin egin zituzten. Harri-hormak, berriz, Kostobalgoarekin; eskailerako mailak eta barruko arkuteria Gorosabelen harriekin (Bergara); eta balkoiak eta barruko burdinaria Elorrioko Rafael Amezolak egin zituen.

Eskalinata nagusiak 19 maila ditu; mailak pieza bakarrean egin-



UBANE MADERA

Udaletxea berritu baino lehen (1990ean hasi ziren), areto nagusiko ekitaldiak lehengo presidentziara begira egiten zituzten.

da daude eta 2,75 metro zabal dira.

Areto nagusiak, berriz, 127,9 metro koadro ditu. Haren sabaia 1928an berritu zuten. 63 aulki ditu bueltan aretoak eta presidentziarako aulki nagusia; azken hori Arrasateko Migel Mateo Areitiok egin zuen. Hala, udaletxea berri-

Udaletxearen eraikina bera 210.891 erreal eta zortzi marabedi kostatu zen

tu baino lehen (1990ean hasi ziren), areto nagusiko ekitaldiak presidentzia hari begira egiten zituzten. Gaur egun, berriz, presidentziaren jarlekua aretoaren atzeko aldea da.

Bitxikeria moduan, esan beharra dago presidentziaren atzean tapatutako ate bat izan zela; Fran-

tziako Luis XVIaren anaiak, Artoisko kondeak, atzeko gelak erabili zituen 1782an, deserriratu zegoela. Gela haiekin komunikatzeko eraiki zuten atea.

ARMARRIAREN DISEINUA

Armarriari dagokionez, haren diseinua 1760an onartu zuen Udalak. Martin Carrerak aurkeztu zuen, baina 24 urteko Manuel Martin semeak diseinatutakoa zen.

Koroaren barruko aldean, egilearen sinadura dago.

Herriko seme batek eman zuen armarrirako dirua: 6.000 erreal.

Eraikina, berriz, 210.891 erreal eta zortzi marabedi kostatu zen. Burdineriak, balkoiek-eta 24.259 erreal eta zortzi marabedi. Eta jarleku bakoitzak 141/2 laurden kobrezko txanpon. Hain zuzen ere, udaletxearen lanak 1756ko udaberriari hasi zituzten; inaugurazioa, berriz, 1766an egin zuten. Ospakizunen artean, zezenketa eta guzti izan zen.

1756ko urtarrilaren 2an, Fernando VI.a erregeak udalerriri ahalmena eman zion ardo pitxer bakoitzeko ordaintzen zuten zerga lau marabeditan garestitzeko hamar urtean. 1766an, zerga hori ezabatu beharrean, beste hamar urtez luzatu zuten, areto nagusiko jarlekuak ordaintzeko.



ALMACENES ARRASATE

FAGOR, ASPES, EDESA eta ORBEGOZO etxetresnetan sekulako eskaintzak!
Orain erosi, eta ordaindu sei hilabetean interes barik.



BERMEA
2
URTE

1.460
X
550
X
590 mm

HOZKAILUA 2FA255
255 €42.428 pta



BERMEA
2
URTE

1.850
X
598
X
590 mm

HOZKAILUA COMBI 2FAC495
375 €62.394 pta



BERMEA
2
URTE

500/800
b/min
5 kgr.

GARBIGAILUA LA383
291 €48.418 pta



BERMEA
2
URTE

650/1.000
b/min
6 kgr.

GARBIGAILUA LA4163
345 €57.403 pta



BERMEA
2
URTE

1.000 b/min

GARBIGAILUA 4L104
294 €48.917 pta



TELEBISTA SHARP
LCD, 26" LC-26GA5E
999 €166.220 pta




TELEBISTA PHILIPS
LCD 26" 26PF-4310
999 €166.220 pta



BERMEA
2
URTE

LABEA
H2-1401BN
BITROZERAMI-
KA

LABEA eta BITROZERAMIKA
298 €49.583 pta



BERMEA
5
URTE

AIRE EGOKITUA
HOTZA ETA BEROA
290 €48.252 pta



BERMEA
2
URTE

2.050
frigoría/h
20-25 m2
lokaletan
erabiltzeko

AIRE GIROTUA ADR 66
275 €45.756 pta

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.

Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN. Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Kataide poligonoan 3, Roneo ondoan.

Kataide poligonoa 3 • Arrasate Tel.: 943 77 13 52 / 943 77 00 34

Ordutegia: 09:00-13:00 / 15:00-20:00 ZAPATU GOIZETAN ZABALIK



GUREA

TABERNA

Gutziz berrituta, berriz ere zuekin!

Durana 32 Aretxabaleta
Tel.: 943 79 20 64

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a

382. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Arakarazo auzora doan bidea konpontzen hasiko dira ekainean

MIRARI ALTUBE

Arkarazo auzora doan errepidearen zatia konpontzeko lanak hasi gura ditu Udalak. Lan horiek egiteko deialdia kaleratu zuen joan zen astean, eta enpresa eraikitzailea izendatu ostean hilabete bi eman go dizkio lanok egin eta errepidea behingoz konpontzeko.

Arkarazo auzoan dauden lau baserrietara doan errepidea ez dago batere ondo. Ez da oraingo kontua, baina Udalak behin betiko konpondu gura du, euria edo elurra egiten duen bakoitzean ez da din zartatu.

BI HILABETEKO LANAK

Joan zen asteko GAOn argitaratu zuen Udalak errepideko konpontze lanak egiteko lehiaketa deialdia. Hamabost egunen buruan hautatuko du enpresa eraikitzailea eta gero hilabete bi izango ditu hark konponketa lan guztiak egiteko; aurrekontua, ostera, 333.812 euro da. Hala, lehenbailehen hasi eta bukatu gura ditu errepideko lanok Udalak, uda parte delako halako lanak egiteko garairik egokiena.

LUR AZPIKO UREN ERRUZ

2003an euri jasek apurtu zuten errepidea, 2004an elurteek eta

2005ean egindako elurrekin ere larri ibili dira auzotarrak. Arkarazoko errepidearen konpontze lanak, baina, uste baino zailagoak dira. Orain dela urte bi konturatu zen Udala horretaz; lanek, baina, diru asko eskatzen zuten, eta behin-behineko konponketak eginda ibili da orain arte.

Iazko apurketak konpontzen hasi zirenean konturatu ziren 50 metroko horma baino zerbait gehiago behar zutela lurrik behera ez egiteko. Azterketa geologikoa egin zuten orduan, eta lur azpiko urek lurra hondoratu egiten zutela ikusi zuten. Ondorioz, ura kendu behar zaie lurri, eta ondoren errepidearen oinarrian harrizko horma handia egin. Hala, errepidea ez da zartatuko eta lurrik ez dute behera egingo.

LAGUNTZA ESKAERA ALDUNDIARI

Konpontze lanen aurrekontua 330 mila euro baino gehiago da. Kostu handia bada ere, Udalak aurrera egitea erabaki du. Izan ere, Arkarazo auzoko lau baserrietara joateko bide bakarra da, eta azken urteotan arazo handiak sorrarazi dizkiete baserriarrei. Gainera, behin-behineko konponketak eginda, argi dauka ez dela sekula ondo egongo bidea.

Txosten geologikoa eginda dauka Udalak, eta lan guztien berri emango dio Foru Aldundiari, laguntza eskatzeko asmoz. Laguntza heldu edo ez, lanok aurtengo udan hasi eta bukatuko dituzte, bestelako arazorik sortzen ez bada behintzat. Hortaz, hurrengo negua lasai pasatzeko moduan daude arkarazotarrak.



Bedoña auzoan jaiotzen ziren *Loramendi* eta oroitarrak dago bere omenez jarria.

'Loramendi'-ri omenaldia egin ziotela 70 urte dira

M.A.

Atzo, ekainak 2, bete ziren 70 urte Juan Arana Ezpeleta, *Loramendi*, olerkari aretxabaletarrari omenaldia egin ziotela. 1933ko martxoan hil zen, eta 1935eko Oleriti Eguna *Loramendiren* omenez Bedoña auzoan —gaur Arrasate— ospatu zuten. Kepa Antxia Leturiak gogorarazi dizkigu kontuok.

Juan Arana Ezpeleta 1907ko ilbeltzaren 27an jaiotzen zena Bedoñako Mendibitsu baserrian, orduan Aretxabaleta. Fraide ikasketak egin zituen Kaputxinoekin eta oso gazte hil zen, 1933ko martxoaren 23an, lehenengo meza esan baino egun batzuk lehenago. Egundak *Euzkadi* egunkarian bi bertso sorta agertu ziren, eta Gasteizko apaiz-

tegiari zegoen On Jose Maria Arizmendiari ere olerkariaren idazlanen literatura kritika sakon eta fina argitaratu zuen.

1935EKO OLERTI EGUNA

Hil eta urtebetera Aretxabaleta eta Arrasateko euskaltzaleek omenaldi apala eskaini zioten Bedoñan. Urte berean, Zarautzen, Oleriti Eguna ospatu zuten *Lizardi*-ren omenez, eta hurrengoan, 1935ean, Bedoñan ospatzea erabaki zuten.

Jendetza batu zen Bedoñan ekainaren 2an. Meza esan zuten lehenengo, eta *Loramendi*-ren omenez oroigarria jarri eta bedaitu egin zuten gero. VI. Oleriti Eguneko sariak banatu zituzten, eta bazkalostea Zepai eta Txapel bertsoariak girotu zuten. Arratsaldean Jose Mari Leizaolaren bertsoaldia eta euskal erromeria izan ziren.



Hilabete biren buruan konponduko dute behin betiko Arkarazoko errepidea.

FRIXI Eraikuntzak

Ondo ibili ferixen!

Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak eta enpresen mantenimenduak

Aranburuzabala 56 • ESKORIATZA • Tel.: eta faxa: 943 71 55 15 • Poltsikokoa: 629 51 39 22

FARMAZIEN TXANDA

ZAPATUA, 4
FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

DOMEKA, 5
FRAILE Herriko Plaza, 10.. 943 79 21 99

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basoko	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Muruko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Uriats Gain	943 79 99 11

UDALTAINGOA

Arrasate 943 79 14 39 |

LARRIALDIK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Erzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdik	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE

PARROKIA
Domekan: 11:00
Zapatuetan: 19:30
Hiletak: 19:00

SANTA RITA

Domekan: 12:00 Gotzainarekin.
Zapatuetan: 18:30
Lanegunetan: 19:00

BASERRI AUZOETAN:

AOZARATZA
Domeketan: 12:30.

ARKARAZO

Domeketan: 11:30

GELLAO/GALARTZA/IZURIETA
Ez dago mezarik.



ARTXIBOA

Ikuslearen parte-hartze zuzena eskatzen du *Ezetz lepoa jarri!* antzezlanak.

'Ezetz lepoa jarri!' antzezlan bihar, gurean

M.A.

Ezetz lepoa jarri! antzezlan eskainiko du Kanpingags taldeak bihar, 22:30ean, kirol etxean. Endredoizko komedia da, eta ikusleak berak erabaki beharko du istorioaren bukaera. Goi mailako sei aktoreen lana bertatik bertara ikusteko paregabeko antzezlan.

Krimena gertatu da ile-apaindegi baten, eta legearen ordezkarien iritziz, bertan dauden guztiak dira susmagarri. Ikusleak erabaki beharko du zein den hiltzailea, eta pista asko eman arren ez da izango lan samurra. Istorioa nahasten joango da poliki-poliki, eta ikusleek eurek aukeratuko dute antzezlanaren bukaera.

Goi mailako sei aktoreen lana ikusiko dute kirol etxera joango direnek. Jose Ramon Soroz, Kontxu Odriozola, Joseba Apaolaza, Ainhoa Aierbe, Kiko Jauregi eta Hasier Ormaza elkartu dira Kanpingags taldean Paul Portnerrek idatzitako *Ezetz lepoa jarri!* antzezlan eskaintzeko. Zein baino zein ezagunagoa, aretxabaletarroi barrea eragiteko trikimailu guztiak erabiliko dituzte.


SARRERAK AURREZ SALGAI

Udaleko Kultura Sailak antolatu du antzerki emanaldia, eta bihar, zapatua, 22:30ean izango da kirol etxean. Sarrerak aurrez eros daitezke 10 euroren truke kultura etxean, kirol etxean eta Arlutz eta Artano tabernetan. Egunean bertan eta leihatilan 12 euro ordaindu beharko da.

LABUR


Joan Maria Uriarte gotzainak esango du domekako meza Agustindarren komentuan

Agustindar elkarte menduureneko ospakizunak egiten dabil. Hala, domekan, ekainak 5, Joan Maria Uriarte gotzainak esango du meza nagusia, 12:00etan, komentuan. Gotzainak Aretxabaletako Abesbatza eta Jose Manuel Azkue organo-jolea izango ditu lagun. Hori horrela, ez dira egongo parrokiako 12:00etako meza eta komentuko 09:00etako. Ekainaren 17an, bestalde, Esteban Irusta Oñatiko organo-jolearen emanaldia egongo da komentuan, 19:30ean.



Domekan bukatuko dute Aste Berdea

Aurrera doa Aste Berdea ekitaldi eta berbaldi arten, tartean Iñaki Antiguedadek eman zuena. Bihar, txotxongilo emanaldia egongo da Basabeazpi gunean, 11:00etan. *Bakartxoren zapatilak* lanak birziklatzearen gainean egingo du berba ume zein nagusiendako. Bai zapatu arratsaldean, bai domeka goizean DBHko ikasleendako antolatutako argazki lehiaketako erakusketa egongo da udaletxe zaharrean Aste Berdeari bukaera emateko. / M.A.



**LURRINGEGIA
OPARI DENDA**

Mitarte 18 • 943 79 38 59
ARETXABALETA



**Bere bezeroen
zerbitzura**

Mitarte 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28

**BENGOA
URDAITEGIA**

**Bertako okelak
eta mortzilak**

Durana 9. Aretxabaleta
Tel.: 943 79 19 79


**LANTOKI BERRIA
LABEGARAIETAKO
INDUSTRIALDEAN
BERGARAN**



**Mobiliario
ARENZA**

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

 **Zenbaki**

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Faxe: 943 71 22 68



**AZKARATE
aroztegia**

943 76 47 19
eta 610 88 40 20

ateak • leihoak
horma-armairuak
tarimak • parketak

Hamaika domina irabazi zituzten Aratzekoek igeriketa txapelketan

M.A.

Urtero joaten dira Aratz taldeko lau gutxitu psikiko Euskadiko Igeriketa Txapelketara, eta aurten inoiz baino emaitza hobekak izan dituzte: 11 domina, horietatik zortzi urrezkoak. Pozik dago laukotea; baita Pedro Balentziaga entrenatzailea ere.

Donostiako Altzako kiroldegian jokatu zen joan zen astean Euskadiko gutxitu psikikoen igeriketa txapelketa. Euskadi eta Errioxako lagunak elkartu ziren igerilekuan, 150 lagunetik gora.

GUZTIRA HAMAIKA DOMINA

Urduri bai, baina eskarmentuak ematen duen ziurtasunarekin joan ziren aretxabaletarrak; baita lortu ere. Juan Carlos Barrok urrea irabazi zuen bular-igeriketan eta zilarra crawl estiloko igeriketan. Iker Arexolaleibarrek brontzea erdietsi zuen crawl-igeriketan, eta Iñaki Iturbek zilarra crawl estilokan eta brontzea bular-igeriketan. Laugarrenak, Jon Ander Leonardok, urrea lortu zuen bi estilotan, crawl eta bizkarrean.

Bakarka egin zituzten lehenengo probak, eta taldeka bukaeran. Bakoitzak 25 metro egin behar izan zuen igerian, eta ondo baino hobeto moldatu zen laukotea: "Iaz brontzea lortu genuen taldekako proban, baina aurten urrearekin etorri gara; hori izan da aldaketa bakarra", dio Pedro Balentziaga entrenatzaileak.



Luis Mari Arejolaleibar arduraduna eta Pedro Balentziaga entrenatzailea pozik mutilekin.

Aldaketa bakarra baina handia, eta benetan pozik dago laukotea lortutakoarekin. Izan ere, guztira 11 domina ekarri dituzte.

ASTEAN BEHIN IGERILEKURA

Astean behin joaten da laukotea, beste kide batzuekin batera, kirol etxeko igerilekura. Pedro Balentziagak zuzendutako entrenamendu saioak egiten dituzte, eta gustura jarduten dute igerian. "Oso urduri egoten dira txapelketa egunean, baina gero ondo moldatzen dira, eta izugarritzko poztasuna da eurentzat dominak irabaztea", dio Pedrok.

Izango ote dute domina guztiak gordetzeko lekurik? Hala entrenatuz gero, datorren urtean ere izango da zerbait.

"Oso urduri egoten dira txapelketa egunean, baina gero oso ondo moldatzen dira"

LABUR

Joseba Akizuk Gipuzkoako Teknikazio Txapelketa irabazi zuen zapatuan, Bergaran

Joseba Akizu aretxabaletarrak Gipuzkoako Teknikazio Pilota Txapelketa jokatu zuen joan zen zapatuan, Bergaran. Ioritz Arrieta hernaniarra izan zuen aurrean, baina aise irabazi zion, 16-8. Josebak 14 urte ditu eta infantilen mailan jokatzen du.

Gipuzkoako Pilota Federazioak antolatzen ditu Teknikazio Txapelketak, eta Josebak behin baino gehiagotan jokatu izan du hainbat mailatan. Oraingoan, baina, finalera iritsi bakarrik ez, txapel eta guzti itzuli zen-eta etxera.

FOTOKIROLA



Bordelen izan dira Arizmendiko futbolariak

Bordelen egin duten Futbol 8ko txapelketan izan dira Arizmendi ikastolako lau talde, alebinak hiru eta infantila. 58 ikasle eta 50 guraso hurreratu ziren, eta izugarria izan da esperientzia. Errusiar, portugaldar eta errumaniarren aurka jokatu zuten, baita Paris Saint Germain moduko talde ezagunen aurka ere. /M.A.

Karlos
Harakina
Santa Kurtz 5
Tel.: 943 71 25 54
20550 ARETXABALETA

BASABE
jatetxea
Basabe bidea z/g
Tel.: 943 79 91 84
Aretxabaleta

PAGALDAI
Opari denda
Burrindegia
Durana 33 • Aretxabaleta
943 79 10 14

Hirusta
Jatetxea
Ilargi plaza 4 ARETXABALETA
943 79 06 57


Aretz
Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Pizzak
Oilaskoak eta
paellak eramateko

Jon Díaz
Harakina
Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

ZARAIA
taberna
Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA • Tel.: 943 79 88 95


ATREBENTZIAEZPADA/ Aste Berdie egitten gabitz; zuk zer uste dozu automobile asko ibiltten douela?



ALBERTO URIBETXEARRIA
Jubilae



ELOINA ARRIBAS
Langillie



JOAQUIN ZAPATA
Langillie



FELIX MADINABEITIA
Jubilae



LOLI DIAZ
Langillie



JON VITERI
Langillie

Zalantza barik, norberan automobile larrei eta publikue gutxi. Tranbian proiektue interesantie dala pentsetan dot; 10 miñuturo pasau ezkerro, lanera doienai be ondo etorriko jako.

Bai, larrei, baiñe autobuse ez dabil ondo eta bizikletan ibilttie arrisksue da. Garraio publikue, gaiñera, oso karue da; seme-alabekin Mondrauera fan-etorrixe 6 euro kostetan jat.

Bai, baiñe nere kasuen biher-biherrezkue dot. Komodidade eta ohittura arazue dala uste dot, leku danetara faten gare automobile. Garraio publiko gehixau be biher dogu.

Nik neuk askorik ez, baiñe jentiek txikiteorako be bai. Halaxe ohittu gare, komodidade dala, prixeke bizi garela, leku danetara automobilez. Lehen, barrez, oiñez ibiltten gitzen.

Bai, autobuse gehixau ibilli biherko geuke gutxi kutsaketako. Neure ustien nehikue garraio publiko daukou, eta kontzientzia arazue da; poliki-poliki danok ibilliko dou gehixau.

Bai, larrei ibiltten dou. Ohitturie, garraio publiko eska... Danagatik dalakuen nau, eta gatxa da horrei bueltie emutie. Ohitturak aldaketako garraio publiko eraginkorra biherko geuke.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK ESPALOIAK BEHERATZEN Espaloi ertzak beheratzen dabilta herriko hainbat tokitan gurgildun aulkian dabiltzanak eta ibiltzeko arazoak dituztenak eroso jaitsi ahal izateko. Ondo pentsatu du baten batek, espaloi batzuetan izugarrizko maila zegoelako. Hori bai, beheratze horiek ez daitezela izan automobilak espaloi gainera igotzeko. Bestela, a zelako konponbidea... / M.A.

ORAINDELA3URTEARETXABALETAN

Akordeoi Orkestrak 10. urteurrena ospatu zuen

Ekainean hasi eta uztailearen 20a bitartean hainbat ekitaldi antolatatu zituen Akordeoi Orkestrak 10. urteurrena ospatzeko. Arrasateko Big Band taldea, Lasarte-ko Zero Sette Akordeoi Orkestra, Iñigo Aizpioleta akordeoilaria eta Euskal Herriko Gazte Orkestra egon ziren herrian.



ASTEKODATUA

190

UMEK EMAN DU IZENA UDALEKU IREKIETAN

Joan zen egubakoitzean bukatu zen udaleku irekietan izena emateko epea. 190 umek eman du izena, eta uztailearen 4tik 22ra bitartean han eta hemen ibiliko dira, 30en bat begirale lagun dituztela.

BESTEKEESANA

“Euskaraz Bizi izenaren pean biltzen ditugu gure ikastetxeetan euskararen erabilpena bultzatzeko eta eragiteko egiten ditugun jarduerak. Seaskako esperientziaren gogoeta egiteko Iparraldean euskarak bizi duen egoerari buruzko hausnarketa egin behar da lehenengo, eta Seaskako ikastolak antolatzen dituen ekintzak aztertuko ditugu gero. Euskaraz Bizi proiektua bere eragina izaten ari da. Proiektua sistematizatu eta arautzeak ekintzak hobetzea ekarri du, gauzak eraginkortasun handiagoz egitea. Baina gizartearen hizkuntza ohiturak hain indartsuak izaki, eta frantsesaren indarra hain handia, batzuetan etsipenerako ere arazoak ikusten dira, eta horrek erronkak handiagotu egiten ditu.

AITOR SARASUA
‘Ikastola’/05-05-18

HERRITARRENBERBAK/ Irati Pagoaga



Azterketak...

Badator azterketen sasoi, eta horreaz batera hamaika burukomin ikasliendako. Azterketa berbia entzun orduko beste hamaika irudi etorten jaku burura: estresa, presinua, urduritasuna, larritasuna, azterketetarako ikasitako dana hurrengo egunien ahaztuta dauenan sentsazinua... Azterketak gerturatu ahala egoera bat baino gehixau etorriko jatzue gogora, sarritan larritasunek eragindekuek, eta beste batzuetan azterketen zentzu faltak: “Zertan nabil hau ikasten? Zeinenak ete die honeik apuntiok? Orri batzuk falta jat ikasgai osue izeteko. Bixer lehenau jaikiko naz eta gehixau eingo dot. Dana ondo antolatute eukiteko plan bat eingo dot...”

Emuten dau azterketien helburue aprobeitue bakarrik dala; geroko ikastie eta kontu horreik bigarren maila baten geraketan die. Sarritan

ikasgaixak azterketien zailtasun mailian arabera klasifiketan die. Zoritzarrez edo zorionez, azterketen kontu honeaz be hainbat balore edo ezkutuko mezu trasmitiruten die. Azterketetan ataratako notian arabera sailkaketan die batzutan pertsonak, eta ez eindako saiakeren arabera. Umien eta ez hain umien artien be zelabaiteko kompetentzia sortzen da: azkarrak eta ez hain azkarrak. Eta onerako izen txarrerako izen, kosta egiten da etiketa hori gainetik kentzen. Nik dauketen zalantzak esanda geraketan die, eta hamendik aurrera danon ahalegina izengo da hau aldaketan lana eitie. Bukaketako, ikasten dabitzen danei animuek luzatu gure dutziet hamendik kantoitik. Udia hortxe dau, azterketok pasatuko die oin ezinezkue pentsau arren, eta laister ikusiko gare edozein herriko jaixetan!

“Umien eta ez hain umien artean be zelabaiteko kompetentzia sortzen da: azkarrak eta ez hain azkarrak”

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko ekainaren 3a / 153. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Emakumeendako txangoa bihar, eta topaketak datorren astean

U.M.

Soria aldera joango dira Ituri Zurikoak urteroko txangoa egitera. 26 emakumek eman dute izena. Datorren astean, berriz, Zuiako Koadrilako Emakumeen Topaketa izango da, Legutianon. Aramaiotik eta Oletatik autobusa izango dute joateko.

Bihar goizean goiz atera eta domeka iluntzean bueltatuko dira Aramaiora emakumeak. Hala, zapa-

tuan, besteak beste, Burgo de Osma eta Calatañazor herriak eta San Saturio ermita ikusiko dituzte. Vinuezan egingo dute gaua eta hurrengo egunean, bestelakoan artean, Santo Domingo de Silos ikusiko dute.

EMAKUMEEN TOPAKETAK


Datorren ekainaren 10erako, berriz, Zuiako Koadrilako Emakumeen X. Topaketetan parte hartzeko gonbidapena egin diete koadrilatik Aramaioko emakumei. Aurten, Legutianon egin-

go dituzte topaketak. Hala, koadrilak berak antolatuta, Aramaiotik joan nahi dutenek autobusa izango dute, 15:20an eskolan; eta 15:40an, Oletako plazan.

Legutianon, 16:00etan ongi-torria egingo diete emakumei kultura etxean; gero, 16:30ean, Nola izan emakume saiakeran hilgabe. Emakumea eta estresa izenburuarekin berbaldia egingo du Maite Irastortza psikologoak. 18:15ean, berriz, La Patro antzerki taldeak *Lección de orgasmo* antzezlan komikoa antzeztuko du. Horren ostean, kafea hartuko dute emakumeek, besteak beste, emakumeok elkar ezagutzeko, eta 20:30ean, azkenik, nor bere herrira bueltatzeko autobusa izango dute.

AEROBIK IRAKASLEA BEHAR DUTE

Bestalde, Itur Zuri elkarteak antolatzen dituen ekimenen artean, emakumeendako aerobika egin dute azken urteotan, baina elkartetik jakinarazi digutenez, orain arte irakasle izan duten Eli Lasagak utzi egin behar du. Hala, deialdia egin gura dute beste irakasleren bat lortzeko. Orain arte, astean hiru orduz egin dute aerobika, arratsaldeetan. Interesa duenak honako telefonora deitu behar du: 653 71 66 39.



Hilabete bukaeran beharrean, hilabete hasieran egin dute osoko batzarra.

Julian Untzuetak bake epaile izaten segituko du

U.M.

Eguazteneko ohiko osoko batzarrean erabaki zuen udalbatzarrek Untzuetak segituko duela bake epaile izaten. Haren ordezkotzat izandatu zuten Jesus Zabala.

Batzarrean landutako gaien artean, jakinarazi zuten Arexolako lanak dezente aurreratuta daudela. Baita ere, auzolanetarako dirulaguntzen eskaeren artean, Untzi-

llarako eta Ametzutik Mendixolarako bide bazterrak garbitzeko laguntza eskatu dutela. Horrez gainera, bestelakoan artean, udalbatzeko lanak bukatu direla jakinarazi zuten; eta gazteekin lotutako jarduerak egiteko, oinarriko kirol instalazioetarako eta kultura inbertsioa garatzeko laguntzak eskatu dituztela ere esan zuten. Era berean, besteak beste, kultura eta kirol taldeendako urteko laguntzak onartu dituztela jakinarazi zuten, besteak beste.



ZUIAKO KOADRILA

Beste urte batzuetan 100 emakume baino gehiago elkartu dira halako topaketetan.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibabe • Langilea

Teknologia berriak

E derrra pasatu zait aste honetan txoko honetarako bidali nuen artikulua. Ailegatu ailegatu zen behar zen lekura baina inork ez ulertzeko moduan. Eta txarrena ez da hori, oso berandu enteratu nintzela baino! Hauek komeriak! Eskerrak noizbehinka nire posta elektronikoa begirada bat ematen diodan! Bestela ez nintzen enteratu ere egingo artikulua ez zela gonoraz ailegatu... Zientziaren kontu hauek ni ia beti *out* harrapatzen naute. Ez naiz batere ordenagailu zalea, zer egingo diogu bada!

Lehen gure gurasoei telebista eta bideoarekin pasatzen zaiena, hau da ezja-

kintasuna, pasatzen zait niri azken belaunaldiko teknologia berriekin. MP3 eta GPS berba edo gailuak arrotz egiten zaizkit. Gutxi gorabehera zertarako balio duten jakin badakit baina ez dakit nolakoak diren ere, eta are gutxiago nola dabilzan, non dauden eta beste hainbat galdera. Parean haiek suertatu arte horrela jarraituko dudalakoan nago.

Aitortu beharrean nago,



"Beti bezala, saltzea da inportanteena"

sakelako telefonoak urten zuenean zeharo gorroto nuela eta horrelako gauza bat erosten azkena izango nintzela pentsatzen nuela...baina bai zera! Handik gutxira jausi nintzen mobilaren atzaparretan, eta hasieran etxean uzten banuen ere, bi urtetik hona aldean

eroaten dut edonora. Uste dut jada ezingo nukeela mobil barik inora joan. Bai, hau da errealitate krudela. Eta aizue,

bakarra ez naizen sententzia dut, zergatik ote? Zinera joan eta jada pantailatik esaten digute arren itzuingitzeko traste zahar hori. Eta danok buru belarri segapotoak itzuingitzen...Hori bai, beti dago amatatzea ahazten zaion norbait. Zelako amorrua!

Ez da bakarrik sortzen duen engantzea, askoz larriagoa da osasunerako dauzkan kalteak, uhin elektromagnetikoak direla eta ez direla, ez gaude behar legez informatuta. Beti bezala, saltzea da inportanteena. Ahalegindu ahaleginduko naiz ahalik eta gutxien erabiltzen, zin dagizuet.

LABUR

Autoen gaineko zerga ordaintzeko deialdia egin dute

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea zabaldu du Udalak: ekainaren letik ekainaren 30era arte. Banketxeetan helbideratuta dauden ordainagiriak, berriz, ekainaren 15ean kobratuko dituzte.

Behin borondatezko epea pasatu ostean, ordaindu barik ko kuotak %20ko errekar-guarekin kobratuko dituzte.

Uztailan, berriz, ondasun higiezinaren gaineko kontribuzioa kobratuko dute.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (trandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzoetako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

ALKATEA GOITB-N

Datorren martitzenean, hilak 7, Mertxe Mondragon alkatea GOITBn izango da, *Debarri* saioan. Herriko azken berriak eta herritarren kezak ezagutzeko aukera izango da. Esaterako, herritarren batek zalantzaren bat galdetu nahi izanez gero, aukera izango du hori egiteko. Bi bide izango ditu: Goiena.net-en egitea galderak edo egunean bertan saiora deitzea. *Debarri* saioa 21:00etatik 22:00etara izango da. Gero, 22:30etik 23:00era errepikatu egingo dute. Galderak egiteko zuzeneko telefonoa da: 943 71 23 93.

ESKOLA PUBLIKOAREN JAIA

Domekan, Euskal Eskola Publikoaren jai ospatuko dute Agurainen. Joan nahi duenak aukera izango du horretarako; izan ere, autobusa ipiniko du eskolak, betiere jende nahikoa baldin badago, jakina.

ZINEMA HITZORDUAK

Barikuko zinema saio bi antolatu dituzte hil honetarako, ekainaren 17an eta 24an. Umeendako saioak, berriz, bukatu egin dira, uztaiera arte.



laz dezenteko arrakasta izan zuten gazteek antolatutako jaiak.

Gazteak buru-belarri dabiltza jaiak preparatzen

U.M.

laz bezala, aurten ere Aramaio Tropikaleko Gazte Asanblada dabil San Martin jaiak antolatzen. Besteak beste, jakinarazi digute dagoeneko jaietako kartela lantzen dabilzala San Martin Eskolako ikasleak. Haiak egindako marrazkien artean aukeratuko dute jaien iragarlea.

Hilabete eskas falta da herriko jaiak iristeko. Aurten, uztaieraren 1etik 4ra arte izango da jai Aramaion. Hala jakinarazi digute Udaletik. Jakinarazi digute, baita ere, 20.000 euroko partida eman diotela Aramaio Tropikaleko Gazte Asanbladari, jaiak antolatzeko, iaz, behintzat, herri-

tar gehienak oso konforme geratu ziren-eta.

Gazte taldekoek, berriz, esan digute buru-belarri dabilzala lanean; izan ere, jaietako egitaraua goitik behera antolatuko dute. Udala azpiegituraz arduratuko da: musikarako taulada...

GAUZA ASKO LOTU BARIK

Jaien nondik norakoak ia erabakita dituzten arren, gazteek esan digute oraindik ekitaldi asko lotzeko dituztela. Baina laster emango dizkigutela egitarauaren gaineko xehetasunak. Jaietako kartela egitea, esaterako, eskolako eskatu diete, iaz bezala. Eta eskolatik jakinarazi digute ikasleak hasi direla lanak entregatzen. Beraz, laster aukeratuko dute irabazlea.

Laurogei ume baino gehiago ibiliko dira udalekuetan

Uztaieraren 6an hasiko dira aurten udalekuak, uztaieraren 19ra arte. Goizez ibiliko dira umeak begiraleekin, 10:00etatik 13:00ak arte. Bañera parkea izango dute elkargune eta ekintza gehienak Aramaion bertan egingo dituzte. Edozelan ere, irteeraren bat ere egingo dute, inguruko lekuren batera. Iaz, esaterako, Otxandio-ko igerilekuetara joan ziren.

Lehen esandako moduan, bederatzi begirale ibiliko dira umeak-zaintzen, guztiak-17 urte-tik gorakoak. Haien arduraduna izango da Ana Muñoa.

GARRAIOA, AUZOKOENDAKO

Bestalde, Udaletik esan digutenez, auzoetako umeak udalekuetara eramateko garraioa ipini egingo die Udalak.



85 neska-mutikok eman dute izena udalekuetan; haietako asko txikiak dira.

LABUR

Liburuak aurkitzen eta dokumentuak zela jaitsi erakusteko ikastaroak, KZGunean

Ekainaren 13an egingo dute sarean liburuak zela aurkitu erakusteko ikastaroa. 16:00etan hasiko da, 17:00ak arte. Nahi duenak parte har dezake. Bestalde, ekainaren 27an *Flashget* izeneko ikastaroa egingo dute. Kasu horretan, Internetetik mota askotariko dokumentuak jaitzen erakutsiko dute. 16:00etatik 18:00ak arte izango da eta kasu horretan ere, interesa duen edozein joan ahal da.

Joan Perez Lazarragaren artzain-nobela berridatzi du Salaberrik, modu errazean

Lazarraga idazlearen artzain-nobelaren beste transkripzio bat egin du Patxi Salaberri aramaioarrak. Ikasleek nobela hori ahalik eta errazen irakurtzeko helburuarekin egin du lana Gasteizko Filologia Fakultateko irakasleak. Hori lortzeko, orain arteko transkripzioak osatzen edo hobetzen saiatu da Patxi Salaberri, baita ere, testua ahalik eta modu normalduenean ematen. Ezagutzen den euskarazko lehen nobela da hura, eta Euskaltzaindiak eskuizkribu haren garrantzia azpimarratu du.

Ekainaren hasierak agintzen duen legez, Santikurtz Eguna ospatuko dute

Etzi, domeka izango da Santikurtz Eguna. Azkenaldietan moduan, aurten ere Arexolako eta Arriolako gazteek antolatu dute ospakizuna. Ohiko moduan, 12:00etan meza esango dute Santikurtzeko ermitan eta horren ostean, salda eta txorizoa emango dute. Festa giroten laguntzeko trikitilariak ere izango dira; eta eguraldi onak lagunduz gero, auzotarrek han bazkalduko dute, beraz, iluntzera arte luza daiteke festa. Antolatzaileek gonbidapena egin diete herritarrei, egun berezi horretan parte hartzeko.

Elbarriei laguntzak emateko deialdia egin du ongizateko foru erakundeak

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako erakundeak egin du laguntzak eskatzeko deialdia. Publikoa denez, Araban bizi den edozein herritarrek eska ditzake laguntza horiek, betiere elbarri bati laguntzeko erabiltzeko badira.

Hain zuzen ere, Aramaio Udaletik jakinarazi digutenez, zazpi laguntza mota eska daitezke Gizarte Ongizaterako foru erakundearen: pertsonak bere kabuz moldatzen laguntzeko; etxeko laguntza teknikoak; zaintze eta higiene pertsonalerako laguntzak; etxeko lanak egiteko laguntzak; ingurukoekin harremanak bultzatzeko eta komunikaziorako eta informaziorako laguntzak; desplazamendurako gaitasuna handitzeko laguntzak eta pertsonaren mugikortasunerako laguntza teknikoak; laguntza espezialdua ere eska daiteke eta baita lanbide-sustapena ere.

Elbarriendako laguntza horiek eskatzeko epea datorren ekainaren 23an bukatuko da. Halakoetan ohi denez, dokumentazio zehatza aurkeztu beharko dute interesatuek. Edozelan ere, informazio gehiago behar duenak Udaleko Gizarte Zerbitzura jo deza-keela jakinarazi digute.

Dantza erakustaldia izango da bihar, zapatua

U.M.

Gasteizko Arduza Dantza Taldeak egingo du bihar dantza erakustaldia Aramaion. Eguraldiak laguntzen badu, plazan egingo dute saioa; hala ez bada, kiroldegian. Vital Kutxako Gizarte Ekintzak antolatu du ekimena. Aurrerago halako gehiago izango dira.

Dantza-talde handia etorriko da bihar, 52 kide osatutakoa. 19:30ean egingo dute dantza-saioa, doan gainera. Ordu bete ingurukoa izango dela jakinarazi digute.

EGITARAU KULTURALA

Lehen esandako moduan, Vital Kutxako Gizarte Ekintzak biderratu du biharko ekimena. Jakinarazi digutenez, aurten lehengo aldiz, egitarau kultural bat osatu dute Vital Kutxakoek. Hainbat ekitaldi sartu dituzte egitarauan. Hala, Arabako koadrilei aukera eman die nahi dituztenak aukeratu eta herriz herri erakusteko. Biharko erakustaldiarekin estreinatuko dute Vital Kutxaren egitaraua. Baina jakinarazi digutenez, aurrerago ekitaldi gehiago izango dira, bai Aramaion, baita Zuiako Koadrilako bestelako herrietan ere.

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a / 211. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otolara 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarrri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

Ume, gazte zein helduendako moduko ekitaldiekin dator Eskoriatzako IX. Ferixie

IKER BARANDIARAN

Bihar, zapatua, Eskoriatzako IX. Ferixie egingo dute. 09:00etan hasi eta iluntzera arte, hainbat ekitaldi izango dira herrian. Baserritarren, artisauen eta abereen azoka erraldoiaz gain, herri bazkaria, antzezlana, dantza eta bestelako ikuskizunak egingo dituzte.

Biharkoa, zapatua, Eskoriatzako azokaren bederatzigarren aldia izango da. Arizmendi ikastolak antolatu du, Udalaren laguntzarekin. 1997an, Jose Arana ikastolaren 25. urteurrena ospatzeko, zerbait berezia antolatzea erabaki zuten. "Azoka txiki bat egitea pentsatu genuen, herrian ez zegoen-eta horrelakorik", azaldu zigun azokaren koordinatzaile Rosa Elizburuk. "13 saltokirekin proba egin

genuen, eta arrakastatsua izan zen. Hortaz, jarraipena ematea erabaki genuen".

Hasieratik hainbat helburu adostu zituzten: euskal giroa sendotzea, euskara indartzea, elizateen presentzia bermatzea, herriko saltokiei lehentasuna ematea eta umeei tradizioak eta euskal kultura jasotzen laguntzea, besteak beste.

AURTEN, 88 BAT SALTOKI

Aspaldian azoka lau gunetan banatzen dute: baserri-elikagaiak, artisauak, baserrietako tresneria eta abereen erakusketa, hain zuzen ere. Autobus geltokitik Aranburuzabala kaleraino ipintzen dute azoka. Horrez gain, inguruetakoz plaza txoak ere saltokiz betetzen dituzte.

Antolatzaileek artisauari eskatzen diete aukera egonez gero saltokian bertan lan egiteko. Horre-



Antolatzaileak saiatzen dira adin talde guztiendako ekintzak eginen.


la, herritarrek, eta batez ere, gaztetxoek, langintza horiek ikusteko aukera izaten dute.

ELIZATETAKOAK, LEHENTASUNA

Baserritar gehienak eskoriatzakoak izango dira. Artisauari dagokionez, Euskal Herriko hainbat lekutatik ekarriko dituzte. Bestalde, ikasleek ere jarriko dituzte saltokiak. 10:30ean zabalduko dute azoka eta bazkalordura arte egongo da irekita.

DANTZA, ANTZERKIA ETA BESTELAKOAK

Horrez gain, urteroko ohitura da azokaz gain ikuskizunak antolatzeta. 12:00etan, hain justu, trikitilariak kalejira egingo dute. Horren ostean, 12:30ean, Durangoko Kriskitin dantza taldeak ikuskizuna egingo du. Talde horrek ospea hartu du Europan, eta oso eskaintza berezia egingo du. Besteak beste, polkalk dan-



ILE APAINDEGIA · LUZATZEAK · MAKILLAJEA · LOOK ALDAKETAK
Aranburuzabala 30 ESKORIATZA 943 71 30 31

ondo ondo
pasau FERIXE
eguna!



LENIZ
ESKORIATZA



■ Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

■ Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

ONDO IBILI FERIXEN!

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

tzatuko dituzte, dantza eta antzerkia uzartzen dituen *Bizar dantza* egingo dute, eta abar.

13:00etan, Berastegitik etorritako bi mutilek motozerrekin enborretan irudiak egingo dituzte. Behin hori bukatuta, hiru saltokiri sari bana emango diete: baserri-elikagai onenari, artisau onenari eta produktu originalenak dituen saltokiari. Errifaren zozketa ere egingo dute. Irabazleek saltokietako produktuekin osatutako bi otar handi jasoko dituzte.

HERRITAR GUZTIENDAKO JAIA

Azokaren antolatzaileek oso argi dute azoka eta jaiegun hori herritar guztiendako dela. "Herria da jai horren protagonista. Eta horregatik oso garrantzitsua da adin guztiendako ekitaldiak izatea: nagusiendako, umeendako, gazteendako", azaldu zigun Rosa Elizburuk.

Urtero egiten duten herri bazkarian, aurten 11 urtetik beherakoek prezio erdia ordaindu beharko dute (6 euro). Gainontzekoek, berriz, 12 euro. Oraindik txartelik eskuratu ez dutenek argi ibili beharko dute. Urtero 300 bat lagun batzen dira mahaiaren bueltan.

VIII. TXORIMALO LEHIAKETA

Azokaren bigarren urtetik hona txorimalo lehiaketa egiten dute. Urtero 120 bat umek esku hartzen dute, eta iaz 26 txorimalo egin zituzten. Txikiek oso gustuko dute lehiaketa hori.

'PLAZARA' ANTZEZLANA, 18:30EAN

Antolatzaileek aditzera eman digute eskuorrian akats bat dagoela: Arizmendiko ikasleek *Plazara!* antzezlana, 16:30ean beharrean, 18:30ean egingo dute. Gaztetxean izango da, eta herri proben gainekoa izango da.



ARTXIBOA

Euskal kulturak eta tradizioek garrantzia handia dute azoka egun horretan.

ROSA ELIZBURU /ESKORIATZAKO AZOKAREN KOORDINATZAILEA

"Hau guztiau antolatzearen onena da lanean ibilitako herritar guztiak pozik ikustea"

Hasieratik zabilta azoka hori antolatzen?

Bai, 1997a ezkerro, Jose Arana ikastolak 25 urte bete zituenetik. Urteurren hura ospatzeko, azoka bat antolatzea erabaki genuen, eta arrakasta izan zuenez, gero eta gauza gehiago batu dizkiogu azokari. Are gehiago, azoka asko handitu da. Dena dela, nirekin batera 15 lagunez osatutako lantaldea dabil hasiera-hasieratik. Horien artean, irakasleak, gurasoak, guraso ohiak, aitona-amonak... A, eta ezin ahaztu Eskoriatzako talogileak. Horrez gain, azokaren bezperan eta egunean bertan 140 bat lagunek egingo dute lan.



Azoka antolatzean, zerk ematen dizu poztasun handien?

Batez ere, egun horretan lanean ibili diren herritar guztiak pozik ikustea. Hori da guztia ondo egin den seinale. Saltokietakoak ere pozik etortzen dira, asko saltzen dutela diote-eta. Are gehiago, orain arte eguraldia lagun izan dugu.

Eta zeintzuk dira izaten dizuen zailtasun handienak?

Antolaketak ordu asko hartzen ditu. Ekarri gura ditugun saltoki guztien konfirmazioa lortzea izaten da zailena. Askotan, azkeneko orduan aldaketak egin behar izaten ditugu.

LABUR

Gaur, egubakoitza, Axtrokik batzar orokorra egingo du

Gaur, egubakoitza, Axtroki euskara elkarteak batzar orokorra egingo du, kultura etxeko hitzaldi aretoan, 19:00etan. Joan den urtean egindako lanak eta jarri dituzten helburuak azalduko dituzte.

Kontzejupe herri plataformaren mozioa, atzera

Kontzejupearen mozio bat eztabaidatu zuten. Plataformak eskatzen du "herri borondatearen arabera kargurik ez dagoen hautetsiei kargua utzi, eta jasotako botoen arabera gobernu osatzeko". Udalbatzarrek ez zuen onartu.

Erkotz baserrikoak haserre daude autobideko lanekin

Erkotz baserri ondotik autobidea egingo dute. Horregatik, erabaki zuten lur zati bat desjabetzea. Etxe berria eraiki artean, jabeek ganadua gordetzeko txabola egin gura dute. Bidegik esan die txabola egin arte langileak ez direla lurretan sartuko, baina dagoeneko saiatu dira. Are gehiago, jabeen esanetan han dituzten haritzek aldapari eusten diote, eta ikerketa bat egitea eskatu duten arren, ez dira fidatzen.

AKEITA
taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

ZATOZ FERIXARA ETA EGIGUZU BISITA!

TEL.: 943 71 50 94 • Santa Ana 23 • **ESKORIATZA**



ARRANDEGIAK
J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua

Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. **ESKORIATZA**

ONDO IBILI FERIXEN!



Urlatik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 3a / 9. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelaigoiena.com • Lege gordailua: 55483/05

Udalak erabaki du KZgunea lekuz aldatzea, eta hasi dituzte lanak

X.U.

Orain arte Garro jauregian egon da KZgunea, liburutegiarekin eta ludotekarekin batera. Ez da hori, baina, leku aproposena, eta horregatik erabaki du Udalak KZgunea lekuz aldatzea.

Orain arte Sormen enpresa egon den lokalean jarriko dute KZgunea, Labidea tabernaren ondoan. Astean zehar ibili dira teknikariak lokala ikusi, egin beharko litzatekeen lana aztertu eta aurrekontua prestatzen. Udalak, baina, oraindik ez du aurrekonturik jaso, eta ez daki lanak egite-

Astean zehar ibili dira teknikariak lokal berria ikusi eta ze lan egin behar diren aztertzen



ARTXIBOA

Ikusteko dago ekainaren 20ko ikastarorako lokal berria gertu egongo ote den.

ko zenbat denbora beharko duen. Garro jauregian dauden lau ordenagailuak eramango dituzte, eta gaztetxoek erabiltzeko beste bi ordenagailu jarriko dituzte.

IKASTARO GEHIAGO

Ekainean ikastaro hauek eskainiko ditu Leintz Gatzagako KZguneak: ekainaren 6an, 18:00etatik 19:00etara, *Lagun Aro bizitza osasuntsua*. Eta ekainaren 20an, 18:00etatik 20:00etara Adobe Acrobat Reader programa erabiltzen irakatsiko dute. Oraindik lekua dago.



GURELekoak Bermeora, gaur

GURELekoak Bermeon —eta ez Mutrikun— igaroko dute asteburua. Bermeon zer egingo duten galdetuta, Itsaso Eginok aditza eman digu eguraldiaren arabera erabakiko dituztela ekin-tzak. Urdaibain ibiltzeko txalupa bat alokatu gurako lukete, baita hondartzan ibili eta Gaztelugatxe bisitatu ere. Aurrez askorik prestatu barik, inprobisatzeko asmoz joango dira.

GATZA-GAIN Jatetxea

- ◆ Plater konbinatuak
- ◆ Ogitartekoak
- ◆ Espezialitateak:
 - Baserriko oilaskoa
 - Etxeko txorizoa eta okela ekologikoa



Ondo ibili guztiok ferixen!

943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure zerbitzura
ESKORIATZA

Zatoz Ferixara!
Ondo ibili danok!

Mendraka
Txakolina

Tel.: 94 682 00 00
ELORRIO

Hurrera zaitezte ferixara eta **ondo pasatu!**

FAGOR



**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g

Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)



Maulanda
merenderoa

Ondo ibili
ferixen!

Maulanda auzoa ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56

MEDITERRANEOKO

ADRIATIKOAN ETA EGEON

GRAND^{AK}



%10 + %7 ko DESK.



**GRAND
LATINO**

GRAND LATINO PROGRAMAZIOA 8 EGUN / 7 GAU

Umeak
DOAN

MANTENU
OSOA

BARRUALDEA lehen ~~359€~~ orain **300€**

KANPOALDEA lehen ~~565€~~ orain **473€**

3 eta 4
pertsone
Doan

Ibilbidea: VALENTZIA, VILLEFRANCHE (Monako), LIVORNO (Florentzia), CIVITAVECCHIA (Erroma), NAPOLI, TUNISIA, VALENTZIA.



**GRAND
MISTRAL**

GRAND MISTRAL PROGRAMAZIOA 8 EGUN / 7 GAU

Umeak
DOAN

MANTENU
OSOA

BARRUALDEA lehen ~~415€~~ orain **347€**

KANPOALDEA lehen ~~649€~~ orain **543€**

3 eta 4
pertsone
Doan

Ibilbidea: BARTZELONA, LIVORNO (Florentzia), CIVITAVECCHIA (Erroma), NAPOLI, TUNISIA, MALTA, BARTZELONA.



**GRAND
VOYAGER**

GRAND VOYAGER PROGRAMAZIOA 8 EGUN / 7 GAU

Umeak
DOAN

MANTENU
OSOA

BARRUALDEA lehen ~~749€~~ orain **643€**

KANPOALDEA lehen ~~920€~~ orain **786€**

HEGAZKINA BARNE
NORA/NONDIK
MADRIL EDO
BARTZELONA/
VENEZIA/ ATENAS

Ibilbidea: VENEZIA, DUBROVNIK, CORFU, HERAKLION, RODAS, ISTANBUL, ATENAS edo alderantziz.

HEGAZKINA BARNE MADRIL EDO BARTZELONATIK

%10 + %7ko deskontua aldeaz aurretik. Iragartzen diren prezioak deskontua barne dute. Prezioak pertsonako, logela bikoitzean, pensio osoko erregimenean, irteera konkretuentzat bakarrik. Zatoz gure agenzietara eta galdetu irteera egunez eta promozioaren baldintzez. Karburantearen igoera, tasak, eskupekoak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Prezio zuzenak, lipografiako akastik egon ezean. ESERLEKU MUGATUAK.

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN, EGITEN DUGU.

VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

viajesiberia.com